

Herririk Herri

'Anboto' Zornotzara zabalduko da datorren astetik aurrera, udalagaz hitzarmena sinatu ondoren > 6

Emakumeen
Nazioarteko Eguna

M8!

Erretiroa hartzean euskaltegira

Goizetan, 60 urtetik gorako ikasleekin betetzen da AEKren Abarrak euskaltegia. Gazteak zirela, Durangon euskararen transmisioan etena izan zela diote ikasleek. Orain, besteak beste, ilobekin elkar ulertzeko ikasi gura dute euskara > 3



Kepa Aginako

Irakasle batek garuneko paralisia duen gazte bat bakartu izana salatu dute bere gurasoek > 7

Frai Juan Zumarraga institutuko irakasle batek garuneko paralisia daukan gazte bat aulkira lotu, irauli, eta gela batean bakartu zuen ikasurte hasieran. Geu Be elkarteak eta gaztearen familiak azaldu dutenez, egoera hori birritan gertatu zen astebeteetan. Irakasleari espedientea egin zioten, baina ikastetxera itzuli da, zigorra beteta. Irakaslea eta ikaslea banandu dituztenetik gaztea lasaia go ikusten dute gurasoek. Berrirori horrelakorik ez gertatzeko neurriak hartu daitezela eskatu dute.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
HURRENGO ERAIKUNTZA



Bixente Kapanaga, 19 behea - 946 816 673 - lurreta
www.zarateyexpe.com

momotxo
t a b e r n a



Plateruen plaza, 12
48200 Durango
Tel.: 946 811 006

Berriz > 4

Udal langileentzako laugarren ibilgailu elektrikoa erosi du udalak

Izurtza > 6

Aurrekontu "errealistak" aho batez onartu ditu udalak

Iurreta > 6

Udalak baliogabe utzi du Adif enpresari jarritako isuna

Abadiño > 7

Terrazen ordenantza betetzeko urtebete dute ostalariek

Herririk herri

> DURANGO

Garuneko paralisia daukan gazte bat ilunetan bakartu dute

Frai Juan Zumarraga institutuko irakasle batek garuneko paralisia daukan gazte bat aulkira lotu, irauli, eta gela huts batean bakartu zuen ikasturte hasieran



Frai Juan Zumarraga institutuko ikaslea da Geu Beko gaztea.

> MARKEL ONAINDIA

Berriro ez gertatzea. Hori da Geu Be elkarteko gazte baten gurasoek euren salaketagaz lortu gura dutena. Garuneko paralisia dauka gazteak, eta ikasturteko lehenengo astean, Frai Juan Zumarraga institutuan, krisi bat eduki zuen. Irakasleak gaztea pasillora ateratzea erabaki zuen, baina ikasleak ez zuen irten nahi izan, eta irakasleak gaztea aulkian jarri, eta alboko gela hutsera eroan zuen. Ikaslea bere gelara bueltatzen saiatu zen, eta aulkira lotu eta irauli egin zuen irakasleak, ihes egin edo minik hartu ez zezan. Gela huts eta ilunean bakarrik utzi zuen. Irakaslearen neurria desegokia izan zela diote Geu Bekoek.

Egoera hori birritan eman zen aste berean. Heziketa berezia behar dutenen gelan lau gazte daude, eta gainerako hiruren abisuari esker zabaldu zen gertaeraren berri, irakasleak ez zuen eta informatu. Institutuko zuzendaritzak irailaren 16an informatu zuen familia. Irakaslea ikaslearengandik apartatu, eta espedientea egin zioten. Irakas-

leak argudiatu zuen gainerako hiruren arreta beharrak eroan zuela neurri hori hartzera, ezin zuelako leku bietan aldi berean egon. Ikastetxean laguntzaile baten lanaldi erdia murriztu zieten irakasleei.

Institutuak, Berritzegunek eta Aldundiak izandako inplikazioa eskertu dute gurasoek

Beste lanpostu batera

Irakasleak bere zigorra bete eta otsailaren 13an beharrera bueltatu zen, baina ikastetxeak eta gurasoek ez zuten horren berririk eduki egunera arte. Orduan, ikaslea eta irakaslea batera ez egoteko neurriak eskatzen hasi ziren. Irakasleak beste lanpostu bat onartu zuen zentroan bertan, gazteagaz hartu-emanik ekarriko ez ziona. Prozesuan institutuak, Berritzegunek eta Aldundiak izandako inplikazioa eskertu dute gurasoek.

Geu Be elkarteko Jose Alfaro begiraleak azaldu du eurentzat ia eguneroko gauza dela gazteak eutsi eta geldiaraztea. Baina egiteko moduak eta moduak ei daude, eta jokaeraren arabera eraso izan ahal da. Prozesu bat ei dago, eta zaintzaileak pauso guztiak erregistratu behar ditu. Gainera, gertakaria jazo, eta begiraleak segituan informatu behar du familia.

Prozeduraren arriskua

Gurasoek eta elkarteak irakasleei ezartzen zaien prozedura hori egokitzea eskatu dute. Izan ere, prozeduraren emaitza, irakaslea gaztearengana bueltatzea arriskutsua, izan dela uste dute. Horregatik, prozeduraren amaieran gaztearen ongizate emozionala kontuan hartzea aldarrikatu dute.

Apartatu dituztenetik, semea lasaiago ikusten du aitak. Horrelako gertakariak gurasoei eta begiraleei ere estresa lako arazoak sortzen dizkietela ohar-tarazi dute.

Bestalde, krisi ekonomikoa baliabideak murrizteko aitzakia lez ez erabiltzea eskatu dute.

Kurdistan: estatutik gabeko munduko nazio handiena, ukatua

Newroz Euskal Kurdu Elkarteak zineforuma eta solasaldia antolatu ditu gaurko, Pinondon

> M.O.

Herri kurdua erresistentzian bizi izan da mendetan. Antzinako inperioen mende lehenik, lau estatutan banatuta, Turkia, Siria, Iran eta Irak, eta errepresio gogorra pairatuta gaur egun. Munduan, estatutik gabeko nazio handiena da, 40 milioi pertsonagaz. Haien borroka zabalteko beharrean dabilta Newroz Euskal Kurdu Elkarteak. Gaur zineforuma eta solasaldia antolatu dituzte Durangoko Pinondo Etxean, 18:30ean.

Solidarioez gainera, kurduak ere badaude elkartean. Gutxi bizi dira hemen; Bizkaian zortzi bat bakarrik, eta horietako bat Durangon. Bera, beste kurdu bi eta elkarteko kide bilbotar bat agertu dira elkarrizketara. Ez dute izenik eman gura izan; bilbotarrak ere errepresioa jasan izan du Turkiaren partetik.

Durangon bizi dena Turkiatik dator. Hango kurduak bizi dute egoera gaitzena. Azaldu

du Estatuak erabateko ukazioa ezartzen duela kurduetarako, eta euren hizkuntzarekiko. 10.000 preso politiko dauka Turkiak. Ezin ikusi hori Sirian ere pairatu zuten: “Urte askoan ez zuten izan nortasun agiria edukitzeko eskubiderik”. Iraken, Saddam Husseinek 200.000 kurdu baino gehiago akabatu zituen. Baina, gaur egun, eremu independentea da praktikan, ofizialki izan ez arren. Iranen, oster, Kurdistan deitzen den probintzia dago. Egoera zatikatu horrek hizkuntza ere eragin du, eta lekuaren arabera ez dute elkar ulertzen.

Bilbotarrak zail ikusten du independentzia: “Biren artean nahiko gaitza bada, eta horretaz hemen badakigu zer edo zer; lauren artean imajinatu ezazu”. Estatu horien maila demokratikoak egoera asko zailtzen duela dio. Frantzia eta Erresuma Batua jo ditu egoeraren erantzule: “Nork marraztu zituen mugak? Kolonialismo europarrak”.

Eskubide Sozialen Karta aurkeztuko dute bihar

> M.O.

Badira hilabete batzuk Euskal Herriko hainbat elkarte eta sindikatu Eskubide Sozialen Karta sortzeko ahaleginetan ari direna. Durangora ere heldu da eztabaida hori, eta bihar egingo dute mugimenduaren aurkezpena. Plateruena Kafe Antzokian ipini dute hitzordua, 10:30ean. Egungo egoeraren aurrean, aldaketa politiko eta soziala bultzatu gura dute.

Ekintza politiko eta instituzionalaren lehentasunak aldatu behar direla uste dute gutunaren sustatzaileek: “Pertsonak eta haien interesak merkatuaren interesen gainetik jarri behar dira”. Euren arabera, gobernuen lehentasuna giza eskubideak bermatzea izan behar da.

Karta idatzita, euskal ekonomia eta baliabideak herritarren zerbitzura jarri gura dituzte, “euskaldun guztiok bizi baldintza duinak eskuratu ahal izateko”. Eztabaidaren bidez, ahalik eta inplikazio sozial handiena batu gura dute.

Euskarazko bideoak sortzeko tailerra antolatu dute

> M.O.

Gazteen artean euskararen erabilera zabaldu guran, bideo tailerra antolatu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Izan ere, helburu horri begira K izeneko egitasmoa ipini du martxan, teknologia berriak eta euskara batuko dituen egitasmoa. Bideo tailerra martxoaren 7an eta 14an garatuko da Landakoko Elkartegian, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. 18-30 urte tarteko gazteei zuzendutakoa da, eta doakoa.

Norbere telefono mugikorragaz minutu biko bideo bat zelan egituratu, grabatu eta editatu irakatsiko dute ikastaroan. Gero, bideo hori sare sozialetan zelan zabaldu izango dute aztergai.

K proiektuaren barruan, *KMovie* izeneko bideo lehiaketa ere sortu du Bizkaiko Foru Aldundiak. Beraz, tailerren landutako bideoa bertan aurkezteko aukera edukiko dute gazteak. Irabazleak 12.000 euro jasoko ditu, eta bere sorkuntza lana pelikula bihurtzeko aukera ere edukiko du.

Nor-nori-nork: Baietza euskarari Durangoko nagusiek

Durangoko Abarrak euskaltegian jubilatuen lau talde daude; gogotsu dabilta euskara ikasten

> AMAIA UGALDE

Oraindik ez dute euskaraz solte-solte eta barra-barra hitz egiten, baina motibatuta daude. Jubilatuen lau talde sortu dira, aurten, AEKn, Durangoko Abarrak euskaltegian. Astean bi egunez eta lau orduz, aurretiaz ikasi ezin izan duten hori ikasten dabilta: euskara.

Askok biloba txikiekin berba egiteko gura dute euskara ikasi. Kanean ere, lagunekin "tabernetan hiru zurito eskatzeko" erabili gurako lukete: "Ulertu egin gura dugu zer esaten duten". Askok aspalditik daukate euskara ikasteko gogo. Euskal Herrian bizita, egin beharreko pauso moduan ikusten dute.

"Aitite, txarto esan dozu, e!"

Kontzik, adibidez, bere bilobagaz dena euskaraz egiten du: "Bi urte ere ez dauzka, orduan berdin da txarto egiten badut ere". Erretiroa hartzean ikasi eta ikasi ibiliko zela erabaki zuen, eta, orain, etxean ume txikia dutenez, euskarari heldu dio. Ume txiki-txikiekin praktikatzen dute euskaltegiko aitita-amamek, baina "handitzen direnean gaitz" izango dela dio batek. "Beno, bost urte ere, nireak esaten dit: 'aitite txarto esan dozu, e!'". Etxeko irakasle txikiak dira

umeak. Aurorari ere ederra bota zion bere bilobak asteko egunak euskaraz ikastea. Errepasoa egin, eta amaieran: "Amama, zelako azentua, e?" Malagakoa da sortzez Aurora.

Adina ez da oztopo

"Irakurtzen hobeto aritzen naiz, baina entzutea eta berba egitea kostatzen zaizkit". Jendeak berba arin egiten duela diote ikasleek, baina hori normala dela: "Gidabaimena ateratzerakoan ematen duten L-aren antzeko zerbait eduki beharko genuke, jendeak jakin dezan ikasten gabiltzala".

Euren belaunaldiko jende asko ez da euskara ikastera animatzen: "Orokorrean gai guztiekin gertatzen zaie batzuei; ordenagailuen inguruan zerbait esan, eta nire lagun batzuek 'hori dagoeneko ez da niretzat', diote; 62 urterekin!". AEK-ko ikasleek animatu egingo lituzkete: "Guri gazteei baino gehiago kostatzen zaigu gauzak buruan gordetzea, baina adina ez da arazoa".

Irakasleek eurek gogotsu ikusten dituzte ikasleak: "Gainera, beti daude prest antolatzen dugun edozertan parte hartzeko". Asteon taloak egiten ibili dira, eta datorren hilean sagardotegira joatera ere animatu dira hainbat.



Jubilatuena lau talde sortu dira, aurten, Durangoko AEKn.

"Hábleme usted en cristiano" eta umetako garaiak

Guraso euskaldunak izanda ere, transmisioan etena egon zen AEK-ko ikasle nagusien haurtzaroan

> A.U.

Euskal Herriko hainbat txokotan gertatu zen bezala, Durangon 1950eko eta 1960ko hamarkadak latzak izan ziren euskararentzat. Orduko eskola umeak dira euskaltegiko lagunak, eta ondotxo dakite hori. Jose Antonio, adibidez, euskaraz ikasi ez duen bakarra da bere etxean. Neba-arre-

betan gazteena zenez, ikasketak egingo zituela erabaki zuten gurasoek, eta gaztelaniaz egiten zioten: "Pentsatzen zuten euskarak traba egingo zidala". Beste neba-arrebei, oster, euskaraz egiten zieten gurasoek. Behin zortzi urte zaharragoa zen anaiak harrituta galdetu zion: "Amak gaztelaniaz egiten dizula? Ia ez

daki-eta!" Bati baino gehiagori gertatu zitzaion gauza bera.

Eskolan eta kalean euskaraz egitea zigortzen zen garaia zen hura. "Hábleme usted en cristiano" esan, eta irakasleak ikasleak jotzen zituela gogortzen dute; euskaraz jardutearren edo gaztelaniaz zer edo zer txarto esateagatik, "el vaca esateagatik, adibidez, makilarekin jotzen zuten".

"Lagun bati entzun izan diot, eta arrazoia dauka; etxe barruetara Franco ez zen sartzen, e?", esan du Jose Antonio. "Franco ez, baina beldurra bai", erantzun diote. Askok, auzokideek entzungo zieten beldurrez, etxean ere gaztelaniaz egiten zutela gogoratu dute.

> ATXONDO



Fuchosako gerente Jose Manuel González irudiaren erdian, jasotako sariagaz.

Inbertsio berriak Fuchosan, nazioarteko saria jaso berritan

2013ko hornitzaile onenaren saria jaso du

> JOSEBA DERTEANO

CBI-k (Chassis Brakes International) enpresarako hornitzaileen mundu mailako eguna antolatu zuen Txinako Wuhan herrian, urtarrilaren amaieran. Mundu osoko CBIn 66 hornitzaile batu zituen topake-

tak, tartean Fuchosa enpresako ordezkariak. Automoziorako balazta ekoizleen artean munduko enpresa handienetakoa da CBI. Bertan, Fuchosa enpresari 2013ko hornitzaile onenaren saria eman zioten. Automozioaren sektorean, segurtasunari

lotutako piezak lantzen ditu Fuchosak. Bere pieza guztien artean bat nabarmentzen da besteen gainetik: ibilgailuetarako balazten urkila. Aurten, beste milioi bat euroko inbertsioa egingo dutela jakinarazi dute, aurreko urteetan hasitako produktio lerro horren erabateko berrikuntza amaitzeko. Horrela, ekoizpen ahalmena areagotzea itzaroten dute. 45.000 tona pieza ekoiztera heldu gura dute, sektoreko eskaera maila igo egingo dela aurreikusita.

katerin ardoak
inñaki uribe
saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetakoko menu bereziak
Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltsan.com

clínica dental hortzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

RPS: 145-13

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK

Goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara ZABALIK

muruetatorre, 2C blokea, beheka - 48200 Durango
Tel.: 946 819 951 - Mug: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

> ZORNOTZA

'Anboto'-k Zornotzara zabaltzeko hitzarmena sinatu du udalagaz

Urtebeterako hitzarmenaren bidez, datorren astetik aurrera Zornotzako albisteak landuko ditu 'Anboto'-k

> JONE GUENETXEA

Anbotok hitzarmena sinatu du Zornotzako Udalagaz. Andoni Agirrebeitia zinegotziak eta Jasone Agirre Anbotoko presidentek eguztenean adostu zuten urtebeterako akordioa. Horrela, astekarian eta webgunean Zornotzako albisteak lantzeari ekingo diote datorren asteko barikutik aurrera. Agirrebeitiak azaldu duenez, "erronka bat da Zornotzako albisteak euskara hutsean jasotzea. Aurrerapauso

garrantzitsua da euskararen normalizaioaren bidean". Jasone Agirrek Anbotoren izenean adierazi duenez, "hedabide moduan bide berriak zabalduko ditugu Zornotzara helduta".

Herriko elkarte eta eragileei zuzenduta, proiektua aurkeztuko dute martxoaren 5ean, 19:00etan, Zelaieta Zentroan. "Elkarte eta eragileekin hartu emanean jarriko gara, eta elkar ezagutzeko modua izango da", adierazi du Agirrek.



Andoni Agirrebeitia eta Jasone Agirre hitzarmena sinatzen, Zelaieta Zentroan.

> ELORRIO

Goieta kaleko etxebizitza bi salgai ipini ditu udalak enkante bidez

Etxe berriak dira udalak salduko dituenak; 81 metro karratuko azalera daukate

> MARKEL ONAINDIA

Elorrioko Udalak azaldu du Goieta kalean jabetzan dauzkan etxebizitza bi salgai ipini dituela. Etxe berriak dira, estreinatu

bakoak, eta 81 metro karratuko azalera daukate. Hiru logela, bainugela bi, ezkaratza eta trastelekuagaz hornituta daude. Udalak esan du enkante bidez

> BERRIZ

Udaleko beharginentzako laugarren ibilgailu elektrikoa erosi du udalak

Orain arte, urtean 2.100 litro gasolio aurreztu dituzte ibilgailu elektrikoekin



Berrizko alkatea eta udaleko beharginak lau ibilgailuen ondoan.

> AMAIA UGALDE

Duela urte bi bizikleta elektriko bat, *pick-up* bat eta furgoneta bat erosi zituen Berrizko Udalak, eta orain beste furgoneta bat erosi du udaltzaintzat. Ibilgailu berriak 25.443 euro balio izan du, baina udalak IHOBE sozietate publikoaren diru laguntza

eduki du, eta azkenean, 10.727 euro ordaindu ditu.

Elektrizitate karga bakoitzarekin 120 kilometro egin ditzake furgoneta elektrikoak, eta potentzia aldetik ez dela desberdintasunik igartzen nabarmendu

du Berrizko alkateak: "Herriko auzoetara joateko eta aldapak igotzeko beste edozein ibilgailu-erren moduan dabil".

Orain arte, ibilgailu elektrikoekin, urtean 1.400 litro gasolio aurreztu ditu udalak, eta furgoneta berriarekin, guztira 2.100 litro aurreztuko dituela aurreikusitu dute.

EAEko datuen seikoitza

Pentsaurrekoan, EEE Energiaren Euskal Erakundearen datuak eman ditu Orland Isoirdek: EAEan 240 ibilgailu elektriko daude momentu honetan. "Horrek esan gura du EAEan biztanleko 0,01 ibilgailu elektriko daudela. Berrizen, lau ibilgailu edukita, biztanleko 0,06 dauzkagu".

> ZALDIBAR

Emakume langilearen astea antolatu dute

Martxoaren 7an afaritarako batuko dira Goierri

> ITSASO ESTEBAN

Helmuga emakume elkarteak, Zaldibarko Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesagaz, Emakume Langilearen XVIII. Astea antolatu du. Martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren bueltan,

hainbat ekintza antolatu dituzte aste horretarako prestatutako egitarauaren barruan. Datorren barikuan, martxoaren 7an, izango da lehenengo hitzordua. Afaria eta dantzaldia egingo dute egun horretan, Goierriko auzo etxean. Udaletxe paretik aterako

da, 21:15ean, Goierriera joateko doako autobusa. Afarira eta ondorengo dantzaldira joan gura duenak, martxoaren 5era arte eskuratu ditzake txartelak Karobi, Olga eta Castet tabernetan.

Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, bestalde, argazki mosaiko jendetsua osatu gura dute antolatzaileek: udaletxeko plazara joateko deia luzatu dute, 14:00etan.

Martxoaren 25erako, Vianara egun pasa ere antolatu dute, egitarau honen barruan. Helmuga elkartearen 688 613 410 telefonon eman daiteke izena.

Kontratuetan klausula sozialak ezartzearen alde

> M.O.

Kontratu eta erosketan publikoetan klausula sozialak ezartzearen alde agertu da udala. Bilduk aurkeztu zuen mozioa eguzteneko udalbatzarrean. Kontratu horietan lan hitzarmenak, euskara irizpideak eta genero ikuspegia txertatzea gura dute, esate baterako. Bilduren ustez, "ezinbestekoa da beste politika bat aurrera erotea".

PPk ez zuen babestu, bere arabera mozioak ez dakarrelako ezer berririk. EAJ ere iritzi berekoa da, baina, adierazpen lez "baliagarria" delakoan, baiezkoa eman zion. Klausulak dagoeneko txertatzen direla azaldu zuten jeltzaleek. Bilduren ustez, badago klausulak lantzeko beharra, eta igerilekuen obrako kontratua ipini du adibide, prezioa soilik baloratu dela esanda.

Gaztetxearen 26. urtemuga ospatuko dute

> M.O.

26 urte bete dira Elorrioko hainbat gazte gaztetxean sartu zirenetik. Urtemuga hori bihar ospatuko dute, egun osorako prestatutako egitarau batez. "Egun berezia" izango dela esan dute gaztetxe kideek.

Goizeko 10:00etan hasiko dituzte ekintzak. Eskalada txapelketako finalak egingo dituzte eskalada horman. Gero, gaztetxean harrera ekitaldia egongo da, baita luntxa eta animaziorako taldeak ere. 13:00etan trikipoteora irtengo dira tabernaz taberna, eta 14:30erako omenaldia antolatu dute. Horren ostean, 15:00etan, bazkarian elkartuko dira pilotalekuan. Bazkalostean Jon Plazaolak bakarriketa eskainiko du, eta 18:00etan argazkia aterako dute. Bertsioren gauagaz amaituko da eguna.



Goieta kalean daude udalak salduko dituen etxebizitzak.

ERROTARITXUENA DURANGO

Inauguratu berria

Estreintatu zure etxebizitza Durangoko auzo berrian, itxaron gabe gainera.

Ongi etorri!

URBANIZAZIOA AMAITUTA

Nahi duzun etxebizitza

Nahi duzun etxebizitza daukagu, **distribuzio ezberdinekin**, gaur **egungo akaberak** eta **terrazza zabalak**, barrutik eta kanpotik goza dezazun.

Kontsulta iezaguzu eta gure aukeren inguruan informatuko dizugu.

prezioak

2 log. 204.000 €+BEZ } -tik aurrera
3 log. 268.000 €+BEZ }

Amaitutako zure etxebizitza eros ezazu arriskurik gabe.
Finantzaketa erosketaren %100 arte.
Gastuak eta zergak ez barne.

www.solvias.es

SabadellGuipuzcoano



946 46 20 41
www.sukia.com



sukia

Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

> IZURTZA

Aurrekontu “errealistak” aho batez onartu ditu udalak

Udalbatzarreko alderdi bien aldeko botoa jaso dute aurtengo aurrekontuek



Auzoetarako bideak konpontzeko erabiliko dute aurtengo aurrekontuetako diru atal bat.

> JOSEBA DERTEANO

Azken udalbatzarrean 2014ko aurrekontu orokorrak onartu dituzte gobernu taldeak (Bildu) eta EAJk, aho batez. Udal guztiei gertatu zaien moduan, gastu mugaren legera egokitutako aurrekontuak dira. “Egungo egoera kontuan hartuta, aurrekontu errealistak dira”, azaldu du Luis Ballarin alkateak. Inbertsioak bere osotasunean garatzen saiatuko direla azaldu dute. EAJ ere bat dator irakurketa horrekin, eta “herriko beharrak betetzeko” aurrekontuak direla dio: “Tarte txikia zegoen proiektu berriak proposatzeko”.

2014ari begira aurreikusitako gastuak 594.671 eurokoak

dira; sarrerak, aldiz, 615.654 eurokoak. Inbertsioen poltsako 150.661 euroak lan hauetarako erabiliko dira: Elizalde auzoko ur hornidurako azpiegiturak berritzeko (15.000 euro), auzoetarako bideak konpontzeko (21.500), irisgarritasun lanak egiteko (36.000), Hiri Antolamendurako Plan Orokorra amaitzeko (20.500), etxebizitzaren proiektuko azterketak egiteko (13.600), Arbizolea industriaguneko urbanizazioa eraikitzeko (22.000) eta azpiegiturak hobetzeko (22.000).

Herriko lehentasunak markatzerako orduan, bi nabarmendu dituzte gobernu taldeak zein EAJk. Batetik, EAJk azalduko eskaerarekin adostasunean,

udal jabetzakoak diren lokalak erregulatzeko ordenantza diseinatzen dabil gobernu taldea, eta udalaren lokalak herritar zein elkarte guztientzako irekita daudela gogoratu du. Baina gai horrekiko herritarren zein elkarten iritzia jasotzeko herri batzarra deitu du datorren asteko martitzenerako, 18:30ean, udalbatzar aretoan. Bestetik, gogoratu duenez, Garauntzako etxebizitza berrietako lokal bat udalaren jabetzakoak izango litzateke. Alderdi bien lehentasunen artean etxebizitza proiektu hori ere badago. Bide horretan, proiektuarekiko interesa erakutsi dutenekin behin betiko zerrenda osatzeko epea ireki du.

> OTXANDIO

Herrira zabaldu dituzten tute eta mus txapelketek arrakasta izan dute

Herriko tabernetan jokatu dituzte jardunaldi asko

> J.D.

Pasealeku jubilatuen elkarteak urtero antolatzen dituen tute eta mus txapelketak berezitasun bat izan du aurten. Jubilatuen etxetik herrira zabaldu dute ekimena, udalaren, Kementsu elkartearen eta herriko tabernetan laguntzagaz. Horrela, iazko azaroan hasi zituzten txapelketetako jardunaldi asko tabernetan jokatu dituzte, ekimena eta bertako giroa herrira irekita. Finalak zapatuan jokatu zituzten.

Mus txapelketako irabazlea Gabriel Kapanaga eta Iñaki Zamaralloak osatutako bikotea da. Txapelkunorde, berriz, Aritz Otxandiano eta Luis Polanco geratu dira. Tute txapelketako txapela Lorenzo eta Juan Luis

González de Langarika anaiek jantzi dute. Txapeldunorde geratu dira Sabino Arrieta eta Julian Uriarte. Hirugarren eta laugarren sailkatuentzako ere sariak egon dira. Pasealeku jubilatuen elkartearen batzarreko presidente Alejandro Estradak ekimenaren arrakasta azpimarratu du: “Parte hartu duten bikoteek esan digute oso gustura aritu direla; tabernetan giro ezin hobea sortu dela. Oso pozik gaude txapelketak izan duen harreagaraz”.

Kementsu elkartearen laguntza azpimarratu du Estradak, eta, batez ere, elkartearen kide Gaspar Axperen eta Jesus Manuel González de Audikanaren lana eskertu du.

> MAÑARIA

Euskal dantzen ikastaroa ipini gura dute martxan

> M.O.

Andra Mari elkarteak euskal dantzen inguruko ikastaroa antolatuko du datozen asteetan. Asmo horren berri eman du dantza taldeak, eta egitasmoa martxan ipini ahal izateko talde bat osatu beharko dute. Gaur izango da lehenengo batzarra, eta bertatik talde bat irtetea espero dute. 19:30ean ipini dute batzarrerako hitzordua, udalarekin.

Elkartekoek azaldu duteenez, ekimenak herriko jaiekin lotura zuzena dauka; izan ere, ikastaroan irakatsiko dituzten dantzak andramarietako alardean eskainiko direnak izango dira. Beraz, dantza ikastaroan parte hartzen dutenek herriko jaietan dantza egiteko aukera edukiko dute.

> IURRETA

Baliogabe utzi dute Adif enpresari jarritako isuna

Aholku Batzorde Juridikoak horren alde ebatzi du

> AITZIBER BASAURI

Espainiako trenbide sarea kudeatzen duen Adif enpresari jarritako isuna baliogabe utziko du udalak. ETBren egoitza zaharrean egindako “jardueraren azterketari Adifek berak traba egiteagatik” erabaki zen 224.000 euroko isuna jartzea alkatetza dekretuz; 2010ean izan zen hori.

Dekretua baliogabetzeko Adifen eskaria udalak ez zuen tramitera onartu 2013ra arte. Eta, orain, prozedura baliogabetzearen aldeko Aholku Batzorde Juridikoaren ebazpena jaso dute. EAJk eta PSE-EEK hori onartu dute; abstenitu egin da Bildu.

Adifen kontra beste bi prozedura ditu zabalik udalak: azpiegituraren erabilera okerragatik eta jarduera ez eteteagatik. Adifi eman diote arrazoia lehen instantzian, baina Justizia Auzitegi Gorenera eroan du gaia udalak.

Espetxe politika

“Denen giza eskubideak, eta, bake eta bizikidetzaren egonkorra” defendatu, eta “espetxe politikaren salbuespen egoeragaz amaitzea” eskatzen duen adierazpen instituzionala ere onartu dute EAJ eta Bilduk. PSE-EEK kontra egin du. Arkaitz Bellonen senideei elkartasuna adierazi diote.

> MALLABIA

Euskara praktikatzeko aukera barikuetan

18:30etik 19:30era hainbat guraso eta herritar batzen da

> JONE GUENETXEA

Berbalagun eta Gurasolagun uzartzea erabaki dute Mallabian. AEK-ko euskaltegiko ikasleei euskara praktikatzeko aukera ematea da helburua. Gainera, herrian ohitura linguistikoak aldatzeko balio duela azaldu du Juanmi Bravo AEK-ko irakasleak. Euskaldun zaharrek euskara ikasten dabilzanekin lotura izatea garrantzitsua dela diote euskaltegiko arduradunek: “Erdaraz hitz egiten diotzun

pertsona hori euskara ikasten ahalegintzen dabilela eta gai dela erakusteko aukera bat da”. Duela hilabete ekin zioten proiektuari, eta gaur laugarren hitzordua izango dute. 18:30etik 19:30era batzen dira jubilatuen egoitza aurreko plazan. Umeek jolasten duten bitartean, gurasoek eta gainerako parte-hartzaileek berba egiteko aukera izaten dute. “Umeek ere ikusten dute lagunaren gurasoak gai direla euskaraz berba egiteko.”

> GARAI

Lantziegora joango dira, senidetza bazkarira

Garai eta Lantziego senide dira iazko martxotik; aurten, elkartzeko eguna martxoaren 29a izango da

> MARKEL ONAINDIA

Garai eta Lantziegoko herriak senide dira iazko martxoaren 16az geroztik. Garain ospakizuna egin zuten lotura hori irudikatuz, eta alkateek hitzarmena sinatu zuten. Urtea beteko da laster gertaera horretatik, eta aurten garaitarrak joango dira Lantziegora, hangoekin ospatzen. Martxoaren 29an ipini dute elkartzeko eguna, eta Garaiko Udala hasi da deialdia zabaltzen. Euren asmoa autobusez joatea da, eta izen-emateko gonbita luzatu diete herritarrei.

Egitaraua Lantziegoko herritarren esku geratuko da, baina senidetza bazkaria egingo dute gutxienez. Horregatik, zerrenda zabaldu du udalak. Hogei euro ordaindu behar dituzte interes-

dunek, eta bazkaria eta autobusa sartuko dira prezioaren barruan. Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazi du martxoaren 14a izango dela izena emateko azken eguna. 946 816 393 telefonora deituta eman ahal da izena.

Dantzatik dator Garairen eta Lantziegoren arteko lotura. Duela 25 urte baino atzerago hasi ziren dantza taldeak harremanetan.

Duela 25 urte baino atzerago hasi ziren dantza taldeak harremanetan

> DURANGALDEA ASTEON**Larrialdi zerbitzuko enpedientea behin betiko ixteko eskatu du PSE-EEK**

Durangoko PSE-EEK eskatu du "murrizketen kontra" protesta egin duten larrialdi zerbitzuko langileei irekitako enpedientea etorkizunean berriro ez irekitzeko. Pilar Rios bozera-maila sozilatik konpromiso bat eskatu dio Jon Darpon Osasun sailburuari, "osasun publiko langile horiek ez zigortzeko etorkizunean ere, herritar guztion eskubideen alde borrokan ibili direlako".

San Agustinerako sarrerak erosteko ordutegi malguagoa

Durangoko San Agustin kultur-guneak alde aurretiko sarren salmenta-gunea aldatu, eta ordutegi zabaldu du. Aurreantzean, Arte eta Historia Museoan salduko dira, martitzenetik eguenera, 16:30etik 20:00etara; asteburuetan, 11:00etatik 14:00etara ere bai.

90.190 zenbakiak irabazi du iPad elektronikoa

Sillero zapata dendan emandako 90.190 zenbakiak irabazi du 'Sale-rosketak be euskaraz' ekimeneko bederatzigarren iPada. Hil hone-tako ordezkio zenbakia 82.154 da, eta DataBost informatika dendan eman dute. Dendetan euskaraz erosteagatik ematen dituzte zozketarako zenbakiak.

Abadiñon kontratuak beteko dituela dio Palmiro etxegileak

Palmiro enpresa etxegileak esan du bete egingo dituela Muntzaratzen eraikitzen dabilen etxeengatik bezeroekin dituen kontratuak. Horrela, etxeko giltzak jaso aurretik etxeari uko egin dioten bezero guztiei 35.000 euroko bermearen %80 itzuliko die. Orain arte kontratuko zati hori bete ez dutela salatu zuen pasa den astean Abadiñoko alkateak.

> ABADIÑO**Udaleko hiru alderdien adostasunagaz onartu dute terrazen ordenantza berria**

Urtebete izango dute ostalariek araudira egokitzeko

> ITSASO ESTEBAN

Abadiñoako Udalean ordezkari-tza daukaten hiru alderdiek nabarmendu zuten, martitzeneko udalbatzarrean, beharrezkoa dela terrazen gaia arautzea. Araudia osatzeko alde guztiak lankidetzan jardun direla ere azpimarratu zuten. Eta aurreratu zuten, urtebete izango dute ostalariek euren terrazak ordenantzara egokitzeko.

Udal gobernu taldeak azaldu duenez, ordenantza berriaren helburua "taberna eta jatetxeek mahaiak eta aulkiak kalera

ateratzea ahalbidetzea da", baina hori "era ordenatu batean" egitea ziurtatu gura du, "beste inori kalterik eragin barik". Jose Luis Navarro alkateak esan du ordenantzak "herritarren aisialdirako zein atsedenerako eskubideak bermatu" gura dituela: "Abadiñoako kaleak bizi egotea nahi dugu, baina hori modu harmoniatu eta arautu batean izatea ere bai".

Ordenantza hau "beharrezkoa eta positiboa" dela azpimarratu zuen Saioa Zuazubizkar Bilduko zinegotziak. Alde guz-



Aisialdirako eta atsedenerako eskubideak bermatzeko sortu dute ordenantza.

tiak lorturiko adostasuna gorai-patu, eta eskaria luzatu zion gobernu taldeari, aurrerantzean, hau bezalako gai konplexuak lantzeko alde guztiakin batzar-rrak deitu ditzala eskatzeko.

Beste eskari bat luzatu zuen Eneko Etxebarria jeltzaleak: "Ordenantza gauzatzekoan malgua izan dadila udala, eta aldaketaren bat egin beharra badago, aldaketa gauzatu dadila".

Gerediaga ingurua zabaldu gura dute asteburuetan**> I.E.**

Gerediagako juntetxea bisitari-riei zabaltzeko formularen bila, negoziatzen dabilta Durangaldeko Amankomunazgoa eta Bizkaiko Batzar Nagusiak. Martitzeneko udalbatzarrean jakinarazi zuten, momentuz, gunea asteburuetan zabaltzea eta proba egitea da asmoa. Gerediagako auzotarren eta Abadiñoako Udalaren urtetako eskaria aintzat hartzea eta espazioa jende-ari zabaltzea da Durangoko Amankomunazgoaren helburua. Izan ere, ikuspuntu kulturalatik zein turistikotik aukera asko eskaini ditzake espazio horrek, betiere gune historiko horren kontserbazioa bermatuta.

> DURANGALDEA**Kirol arloan euskararen erabilera bultzatu gura dute**

Kirol taldeei dinamizazio tailerrak eskainiko dizkiete

> AITZIBER BASAURI

Euskara eta kirola sasoiari kanpaina abiatu du Durangaldeko Amankomunazgoak. Eskualdeko kirol jardueran euskararen egoera zein den ezagutzea eta erabilera indartzeko bideak topatzea da kanpainaren helburua. Horretarako, kirol taldeei dinamizazio saioak eskaintzea izango da lehenengo pausoa.

Saio parte-hartzaileak izatea da helburua. "Horrela, talde ba-koitzaren egoera, premiak eta

iritziak ezagutzeko aukera izango dugu. Gainera, kirol arloan euskaraz dauden baliabideen eta materialen berri emango zaie", diote antolatzaileek. Hiru kirolariek eta entrenatzaileek gidatuko dituzte saioak: Belit Solarrrek, Iraia Garciak eta David Garciak. Amankomunazgoaren Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (EBPN) batutako ildo estrategikoetariko bat da kirola, eta horren haritik ipini dute martxan programa.

Kalejirak eta lehiaketak inauteriez gozatzeko

Inauterietako egitarau zabala prestatu dute

> JONE GUENETXEA

Inauterietan mozorrotzeko proposamen ugari daude Durangaldean. Durangon, Martxoaren 1ean, Surrandi eta Hartzaren konpartsa 18:15ean abiatuko da Merkatu plazatik, Kriskitinekin, Jaizaleko txistulariekin eta Tabira Musika Bandarekin. Martxoaren 2an, adinekoentzako dantzaldia antolatuko dute, eta 4an, umeentzako parkea.

Berrizen, otsailaren 28an, dantzaldia egingo dute. Mar-

txoaren 1ean, berriz, kuadrillak kalejiran irtengo dira arratsaldean. Mozorro lehiaketa ere egingo dute, eta, ondoren, afaria.

Andraband batukada taldea tabernaz taberna abiatuko da gaur arratsaldean, Mallabian. Mozorroren gaia *komikiak* izango da. Mozorrorik eta girorik onena sortzen duen taldeak sarria jasoko du.

Elorrioren, martxoaren 4an, goizean, umetxoaren dantzak, jolasak, desfilea eta gazte parkea

prestatuko dituzte. Arratsaldean, gazte parkean, txokolatadan eta erromerian gozatzeko aukera eskainiko dute.

Bazkaritarako batuko dira Iurretarrak inauterietako zapata ospatzeko. Hilaren 4an, *Urta-roak... Vivaldiren begietatik* antzezlan izango da Ibarretxan.

Mañarian, umeen jolasak, Mugi Mugi berbena eta txokolatada prestatuko dituzte martxoaren 2rako.

Zaldibarren egun osoko egitaraua izango dute martxoaren 4an: kalejira, txokolatada, mozorro lehiaketa eta dantzaldia.

Atxondon, musika dantza-garria eta mozorro desfilea izango dituzte martxoaren 4an, 17:00etatik aurrera frontoian.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!



► Berbaz

Alberto Ortiz de Barron | Gaixotasun arraroa duen ume baten gurasoa | Abadiño, 44 urte

“Familiek euren umearen alde borrokatu beharko lukete, ez dirua lortzearren”

Gaur Gaixotasun Arraroen Nazioarteko Eguna da. Europako Batasunak 10.000 biztanletik bosti eragiten dion gaixotasuna jotzen du arrarotzat. Gutxi izanda, arrazoi gehiago ikusten ditu Alberto Ortiz de Barronek elkarreetara jotzeko; bere esperientzia kontatu du.



> AMAIA UGALDE

Gaixotasun arraroen gaia orain hasi da gizarteratzen, baina orain arte familia barruko zerbait izan dela esan genezake?

Bai, hori familia bakoitzaren araberakoa da. Batzuek familian eta kalean arazoaren berri ematen dute, beste batzuek ez dute publiko egiten. Bakoitzak bere bidea egiten du. Elkarre baten egon zaitezke, edo ez. Gure elkartean Euskal Herriko hogeitau familia gaude. Hortik kanpo hainbat familia gaude elkarreetara jo ez dutenak.

Gaixotasun arraroen barruan eritasun mota asko dago.

Izan daitezke fisikoak edo neurologikoak, eta, bai, mota askotako gaixotasunak daude. Kasu gehienetan kontu genetiko bat izaten da, gene batean egoten da arazoa. Txarrena da zure gaixotasunak izenik ez daukanean; gaixotasun ezohiko bat duzula esaten dizutenean oso gogorra da, baina, gainera, izenik ere ez badauka, askoz txarragoa da. Gaixotasuna ez baldin badago identifikatuta, ez daukazu eze-lango informaziorik; ez dakizu zein izango den zure bilakaera, okerrera egingo duzun eta zelako abiaduran, edota tratamendurik daukazu, adibidez.

Zuen lau urteko semeak gaixotasun arraro bat dauka. Zer gertatzen zaio?

Gure semea gernu-aparatuko arazo batekin jaio zen, eta hori hobetzeko haurtzaroan hainbat ebakuntza egin beharko dizkiote. Gabonetan bere hirurgarren ebakuntza egin zioten, eta oraindik beste batzuk egin beharko dizkiote. Guk zortea izan genuen; haurdunaldian detektatu zioten malformazioa, eta berehala jarri ginen Asexve elkarrearekin harremanetan. Bertako kideek azaldu ziguten patologia hau tratatzen esperientzia gehien duen ospitalea Madrilgo La Paz dela. Hori jakinda, Gurutzetatik bertara bideratu gintuzten erditzera, eta jaio eta berehala egin zioten lehen ebakuntza.

Elkarre asko lagundu dizue, orduan.

Bakarrrik egotearen sententzia kendu digu. Gure sentimenduak, beldurrak, zalantzak eta esperientziak jendearekin partekatuta ahal izateko aukera ematen digu.

Zelan bizi duzue gaixotasuna familian?

Hasieran oso gogorra da, batez ere, familiaren egunerokoa bere

“

Elkartean jakin genuen La Paz ospitalean esperientzia zutela gure semeari egin beharreko ebakuntzetan”

“

Gaixotasuna jende gutxik badauka, ez industria farmazeutikoek, ez gobernuek ez dute inbertitzen; ez da errentagarria”

beharrizantetara moldatu beharra dagoelako, baina behin ibilbidea zein izango den jakinda, askoz errezagoa da. Gure inguruak asko lagundu digu, eskolan eta beste umeekin guztiz integratuta dago, gaixotasun arraro bat izan arren, beste bat gehiago da, eta horrek asko errazten du. Esango nuke, gainera, gure semearen gaixotasunak bizitza beste era batera ikusten irakatsi digula. Eguneko aurrerapausoak baloratzen ikasi dugu, egunean eguneko bizitzen.

Gaixotasun arraroetan ikerketa-falta da arazo nagusietako bat.

Industria farmazeutikoari jende askok dituen gaixotasunak interesatzen zaizkio. Gaixotasun hori jende gutxik badauka, ez industria farmazeutikoek, ez gobernuek, ez dute ikerketan inbertitzen. Ez da errentagarria: hori da errealitatea. Nire ustez, lotsagarria da familia bat botiletako tapoiak batzen ibili behar izatea, gurpil aulki berezi bat lortzeko. Administrazioaren betebeharra izan behar du horrek.

Horrelako kanpainak asko ikusten dira orain: tapoiak, telefono mugikor zaharrak...

Bai, ekintza asko egiten dira

familien gabezia ekonomikoetara aurre egiteko. Hor daude tapoi biketak gurpildun ahulki bereziak lortzeko, Angelman sindromedunek ere mugikor zaharrak batzen dituzte, eta horretarako Abadiñoko hainbat puntutan jarri dituzte euren kurtxak. Bestalde, asteburu honetan ikerketak ordaintzeko telemaratoi bat ere izango da estatuan mailan. Nik uste dut gizarte normal batean gobernuak ipini behar duela dirua, kanpainak egin beharrik barik. Kanpainak agian egin behar dira jendea elkarreetara gerturatzeko; baina dirua lortzeko? Familiek euren umearen osasunaren alde borrokatu beharko lukete, ez dirua lortzearren.

Diruarena arazo handia da?

Gaixotasun arraroa duten kasu askok dependentzia arazo handia izaten dute, eta pertsona baten laguntza ezinbestekoa dute. Beste askori Gizarte Segurantzak ez dizkie botiken gastuak estaltzen. Berdin da gaixotasuna jaiotzetik eduki edo beranduago agertu; gaixotasuna bertirako denean, behin agertuta, norberarekin doa bizitza osoan. Gaixotasun arraro bat izatea gastu handia da familiarentzat, gobernuak lagundu ezean.

Kilauea | Iñaki Larrañaga, Jon Revilla, Ioritz Alejo eta Jokin Larrea |

Ibon Urizar.

“Ahalik eta soinu naturalena lortzeko erabaki dugu Garaten grabatzea”

Elorrioko Ateneoko kontzertuan aurkeztuko du Kilauea laukoteak ‘Sonichaos’ izeneko disko berria, gaur

> ITSASO ESTEBAN

Zer sentazio daukazu diskoaren aurkezpenagaz?

Ioritz Alejo: Gu apur bat nekata eta guzti gaude diskoagaz, baina azken asteotan jendeak asko galdetu digu disko berriaz. Zelanbait, jendeak berak kutsatu digu emozioa.

Eta aurkezpen kontzertua zelakoa izango da?

Iñaki Larrañaga: Areto oso txikia da Ateneoa, oso beroa, eta giro oso polita sortzen da.

Jon Revilla: Oso hurbil daukazu publikoa. Oso gustura jarduteko leku ezin aproposagoa da.

I.A.: Disko berriko kantak ez ezik, maketakoak ere joko ditugu, eta bertsiotzat ere bai, Hella-copters taldearena.

I.L.: Kontzertu arina izango da, hasi eta amaitu egingo dugu; berba askorik bakoa izango da, kantatik kantara tarterik gabekoa. Horrela gustatzen zaigu.

Zer azpimarratuko zenukete disko berri honen inguruan?

I.A.: *Sonichaos* izena du, abesti bakoitzak bere estiloa daukalako. Kanta batzuek gehiago dute punketik, distorsio gehiagotzat, eta beste batzuk amplifikadore klasikoagaz grabatu ditugu...

I.L.: Soinu aldetik kaos bat da diskoa. Itxura batean, rock-and-rolla da dena, baina hainbat ñabardura daude.

Bilatu egin duzue aniztasuna?

I.A.: Bilatu ez dakit, baina probatzen ibili gara, bai.

I.L.: Ni orain gutxi sartu naiz taldean, eta kanpotik begiratu, iruditzen zait maketan abestiak linealagoak zirela soinu aldetik. Oraingoan estudio profesional batean grabatu dugu: ahalik eta soinu naturalena lortzeko aukeratu dugu Garate.

J.R.: Guretzako esperientzia ikaragarria izan da Garaten gra-

batu ahal izatea. Hilabete egon gara han lanean, lagunartean. Batzuk bertan geratu ginen lo egitera, eta lanean jardun ginen arren, ia-ia oporrak izan ziren.

Zer aldaketa gertatu da disko honetan, lehen egiten zenuen musikarekin alderatuta?

I.L.: Disko berrian punk-rockari punk zatia kendu diogula us-te dut, eta *rolla* gehitu diogula. Punk-rocketik rock-and-rollera egin dugu. Estudioan naturaltasuna lortu, eta entsegu lokalean garena diskoan islatu dugu.

J.R.: Maketak ukitu modernoagoa dauka disko honek baino.

Maketa aurkeztean esan zenuen bost urte barru grabaketa horrekin harro egon nahi zenuketela. Harro al zaudete?

J.R.: Ez gara batere damutzen disko hura grabatzeaz, ondo dago. Baina egia da aurrera egin dugula, asko hobetu dugula.

I.L.: Apustu handia egin dugu disko honetarako: estudio on batean grabatu dugu, eta diseinua ere asko zaindu dugu. Seguru nago bost urte barru harro egongo garena disko berri honetaz.

laz irabazi zenuen Durangaldeko Maketa Lehiaketako saria bultzada izan da grabazioa era honetan egiteko?

I.L.: Bultzada inportantea, inflexio puntua izan zen sariaren 1.800 euroko oinarria edukitzea. Hori barik ezingo genuke horrelako grabazio batean sartu.

J.R.: Diru hori barik ez genuke pentsatu ere egingo Garate estudioa joatea disko grabatzera.



Disko berria atzerrian ere erakusteko gogoz

Katalunian zein Ingalaterran jotzeko asmoa dute

Iazko udazkenean, Andoaingo Garate estudioan grabatu zituen Kilauea Atxondoko taldeak *Sonichaos* disko berriko kantak. Hilabetez jardun ziren estaldurarik bako baserri horretako estudioan lanean. Diskoan ahalik eta artifizialtasun gutxien sartzea izan dute grabatzerakoan helburu: mikrofonotik sartzen den soinu datorren bezala jaso dute diskoan. Digitalak soinua apaintzeko ematen dituen aukerak baliatu barik, benetakotasuna bilatu dute.

Duela urtebetetik Kilaueako kide da Namek Planet taldean ibilitako Iñaki Larrañaga elorriarra ere. Londresera bizitzera joandako taldekidearen ordeztatu zen Larrañaga, eta, hasieratik taldean diharduten Alejo, Revilla eta Larreagaz osatzen du laukotea. Hain zuzen, besteak beste, Londresera joan nahi du Kilaueak *Sonichaos* aurkeztera. Ingeleseztatik idatzitakoak dira disko berriko kantak: “Entzuten dugun eta gustuko dugun musikarekin horretara

gaude ohituta, eta hobeto gertzen dela ere iruditzen zaigu”, azaldu dute hizkuntzaren hautua. “Gainera, baliteke horrela Euskal Herriatik kanpo jotzeko aukera gehiago edukitzea”.

Kataluniako musika talde batekin elkarlanean, Herrialde Katalanetan ere zuzenekoak eskaintzeko asmoa dauka Kilaueak. Hala ere, maketa kaleratu ostean gertatu zen bezala hainbeste kontzertu pilatu barik, Ioritz abeslariak azpimarratu du lasaia ibiltzeko asmoa dutela oraingoan. “Asko gustatzen zaigu jotzea, baina hurrengo diskorako kantak sortzeko denbora gehiago izan nahi dugu”. Jon Revillak gehitu du: “Gure helburu nagusia da jendeak gure musika entzutea”.

> ANTZERKIA

Marie de Jongh taldearen 'Kibubu' obrari bi Feten sari eman dizkiote

Javier Renobales aktoreak interpretaziorik onenaren saria jaso du Gijonen



> ITSASO ESTEBAN

Haurrentzako eta gazteentzako arte eszenikoen Feten jaialditik bi sarigaz bueltatu da Marie de Jongh antzerki konpainia euskalduna. Batetik, Javier Re-

nobales Zornotzako aktoreak interpretazio onenaren saria jaso du, *Kibubu* antzezlanean Xebas pailazoa antzeztan egin duen lanagatik. Antzeztan horretarako egindako lanagatik, karakteri-

zaziorik onenaren Feten saria ere eman diote antzerki taldeari. Sari garrantzitsuak dira Jokin Oregiren dramaturgia eta zuzendaritza daukan *Kibubu* lanak Feten jaialdian jasotakoak.

> EMANALDIAK

Gaurko eta hemengo errealitatera egokituta, 'Hamlet', eskualdean

Elorrioren eskainiko dute bihar, eta Otxandion etzi

> I.E.

Azaroan estreinatu zutenetik Euskal Herriko kultur etxe, an-

tzoki eta areto askotan ikusgai izan da *Hamlet* antzezlana. Lepo bete dira aretoak Artedrama,



Lepo bete dira antzokiak orain arteko emanaldietan.

Dejabu eta Le Petit Théâtre de Pain taldeek elkarlanean sorturiko lanaren orain arteko emanaldietan: sarrera guztiak saldu dituzte saio askotan, eta emanaldi bat baino gehiago egin dute hiriburuetan.

Oraindik ikusi ez dutenek aukera bikoitza dute asteburu honetan *Hamlet* Durangaldean ikusteko: Elorrioko Arriolan eskainiko dute emanaldia, bihar, 19:30ean, eta Otxandion herri eskolako gimnasioan, domekan, 19:00etan.

William Shakespeareren pertsonaia, XXI. mendean, Euskal Herrian kokatzen du obrak

William Shakespeareren *Hamlet* klasikoaren moldaketa da antzezlana, eta Xabier Mendigurenek egokitu du testua. Ximun Fuchs da zuzendari, eta Ander Lipus, Ainara Gurrutxa-

Errespetua eta askatasuna ditu *Kibubuk* gaitzat, eta Xebas eta Cocó pailazoak dira obrako protagonistak: arrakasta handirik lortu ez arren, ilusioa sobera duten artistak. Testurik bakoa da obra, eta 5 urtetik gorako umei dago zuzendua. Apirilaren 13an, Durangoko San Agustinen eskainiko dute *Kibubu*.

Karakterizazio onenaren Feten saria eman diote Marie de Jongh antzerki konpainia euskaldunari

Gijonen banatu zituzten sariak, joan zen barikuan, eta Valentziako Maduixa Teatre konpainiaren *Dot* antzeztan eraman zuen 2014ko umeentzako antzerki ikuskizun onenaren saria. Guztira, hamalau sari eta aipamen berezi bat banatu ditu Feten jaialdiak. Lehehenengoz, kaleko antzerki lan onenari ere saria eman diote.

ga, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo aktoreek egiten dute bertan lan. Shakespeareren pertsonaia, XXI. mendean, Euskal Herrian kokatzen du obrak, eta, esaterako, munduaren eromena eta politikaren "gezurra, jukutria, kalkulua eta diru-gosea" erakusten ditu.

Mikrotailerrak

Ikusle izateaz gainera, arte eszenikoak oholtza gaineratik gozatu gura dituztenentzako proposamena luzatu du Elorrioko antzokiak. Lau ikastaro eskainiko dituzte urte hasiera honetan.

Joan zen astean abiatu zuten, adibidez, Natxo Monterok eskainirik dantza garaikidearen gaineko ikastaroa. Martxoan, *Inprobisazioa; sormenerako abiapuntua* ikastaroa egingo dute, Itziar Zoritaren eskutik, eta ipuin kontaketen ikastaroa emango du Alekos kolonbiarrrak, apirilaren 10ean eta 11n. Antzerkiko clown teknikari buruzko ikastaroa ere izango da, maiatzaren 7tik 21era bitartean.

GEURE DURANGALDEA

AINHOA
URIEN

Ikaslea



Jite bereziak

Apaletan gotortutako liburu zaharrei putz egiten diegun bezala deusezten dugu memoria, geografietan gal dadin, borrokaren erdian etsipenetan itota ematen duen pizza bailitzan. Hermann Hesse adiskidearekin hizketan egon naiz, sarri errazago baita liburua zabaldu, eta autorearen hil-harriari hitz egitea, tabako orriarekin birrikak ketan itoz. Hark esan dit estepan badela otso bat, ez beti beldurgarria, baina konstantea, ele zaharretako jauregietan irudikatzen diren erloju salatarien hiltzaile senez.

Iraganaz ere hitz egin dugu, suizidioez eta hilketez; baina, batez ere, ahazturaz, progresuaren baitako amnesia, isiltasunaz.

Helmugari bakarrik begiratzeko joera errotuta dago, Kavafisekin akordatu gara bidenabar, bidaia gozatzeaz, oh Ulises! Berriz ere Penelope haria deslotzen... Progresuak, ordea, aurrera egiteko diosku, altxa burua eta segi; ortzemugan begirada tinko hondar ale bakoitzaren duintasunari uko eginez, lausotutako ikusmenarekin ezin bide ertzetako oasiei erreparatu.

Amnesiaren irudi gordina urrun gabe dago, Gibraltarren hautsi dira intxaur-oskolak eta Ceutako hesietan odoletan ito dira; ez jendea, ez zifrak, zenbakiak zero, pertsonak dira. Egingo dute bai gerra gure partez, Hermannek diost errutina goxoa dela eseri eta iraultzari itzarotea.

Isiltasunaz ere mintzatu gara, ahazturaz bezala. Mozart zain daukala esan dit adiskideak, gaur antza utopien sarean kulunkatuko dira. Esan diot, zirrikituren batean geroa ikusten badu, atzera ere begiratzeko.

Esan etorkizunari iragana dugula zain.

Recordando a los Panchos
Trío Medianoche
Otsailaren 28an - 20:30ean

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO GUNEA

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia
www.plateruena.net

OTSAILAK 28 - 22:30ean 6/8 euro
QUAOAR+MEIDO+SUN PREACHERS
MUSIKA KONTZERTUA

MARTXOAK 7 - 22:30ean 15/18 euro
DOCTOR DESEO
DISKO BERRIAREN AURKEZPENA

MARTXOAK 22- 20:30ean 10/12 euro
JAINKO TXIKI ETA JOSTALARI HURA
KIRMEN, MIKEL, RAFA ETA BINGEN

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

Hemen agertu gura badozu
deitu!

946 217 902

GUK AURKEZTUKO DIZUGU
TRANSIT GAMA BERRIA
ZURE NEGOZIOAREN MOTORRA



Etorri eta probatu
kontsumoan lider diren
merkataritzako ibilgailuen gama



FORD KONDIA
Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650 Tel.: 943 200 966

ZIORLA AUTOAK
Santamaña kalea 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135

ford.es



SEI HANKAKO MAHAIA

EIDER
URIBE

Bildu



Birziklapena

EH Bildutik ez dugu inongo inposiziorik ezarri nahi hondakinen bilketarekin. Helburua argi daukagu; zaborrak murriztu, berrerabili eta birziklatu. Ingurumena zaindu behar dugu, horretarako praktika egokiak ezarrita. Metodo bakoitzaren eraginkortasuna ikusteko datuak begiratzea besterik ez dago. Bada garaia politikarien arteko gatazkak alde batera uzteko, gizartea kontzientziatzeko eta helburuak lortzeko bideari ekiteko.

Hondakinen inguruko foroa eratzeke apustua EH Bildutik egin genuen. Gugandik etorri zen inizatiba eta proposamena. EAJgatik balitz, bosgarren edukiontzia ezarriko ziguten inoren oniritzia kontuan hartu gabe. Foro horretan hainbat esperientzia ezagutu, datuak ikusi, eta bideragarriena den sistema baten alde egiteko aukera izango dugu herritarrok, beraz, ezin dugu aukera galdu. Hainbat bilketa sistema daude, baina garrantzitsuena helburu egokia jartzea eta helmuga horretara heltzeko bidea ondo egitea da.

Eztabaidatu, nahi duzuen esan... baina erabakia hartuta dago. Bosgarren edukiontzia alde egingo du EAJK, aurreko astean argi utzi zigun moduan. Guzti hori birziklatzeko helburuak zeintzuk izan behar diren argitu barik, eta beste sistema batzuk baloratu barik. Beraz, EAJren inposaketa baten aurrean aurkitu ez gaitez goazen denon artean erabakitzera zein sistema den eraginkorrena, helburu onenak lortzen dituen eta gure ingurumena gehien zainduko duena. Horregatik, guztion parte-hartzea beharrezkoa da gure herrian etorkizunean egingo den hondakinen bilketa erabakitzeko.

Gure esku dagoelako egingo dugu

Joan zen zapatuan, Gure Esku Dago Abadiño dinamikaren jendaurreko aurkezpena egin genuen Traña-Matienako Errota kultur etxean. 150 lagun batu ziren gure azalpenak entzutea. Eskerrak eman gura dizkiegu kultur etxeko eserlekurik gehienak bete zituzten horiei, baina baita bertaratu ezin izan zuten arren, modu batera edo bestera dinamikarekiko atxikimendua erakutsi gura izan duen denei ere.

Aretoa hain bizirik eta koloretsu ikusteak asko poztu gintuen, ezin dugu ukatu. Baina kantitatearen gainetik kalitatea azpimarratu gura dugu, bertaratu zirenek erakutsitako borondatea. Aurkezpenean sarritan aipatu genuen Gure Esku Dago erabakitzeko eskubidearen alde gauden guztion dinamika dela. Horregatik, bide hori egin gura dugun guztion parte-hartzea beharrezkoa da aurrera egiteko. Hori dela eta, aurkezpenera batu zirenei dinamika parte-hartzailea proposatu genien, eta kartulinetan idatzitako hainbat galdera luzatu genien. Kartulina horietan, alde batetik, eskatu genien markatu zitazela euren ustez aurrerantzean landu beharre-

ko lan lerrorik garrantzitsuenak zeintzuk ziren; bestetik, galdetu genien lan lerroren batean parte-hartze zuzena izateko prest ote zeuden, eta, hala balitz, zeinetan. Erantzun asko jaso genituen, eta horrek poztu gintuen benetan; horretzek baitu benetako balioa. Aurkezpena ez zen izan helmuga, abiapuntua baino, erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarria Abadiño txoko guztietara zabaltzeko prest gauden guztion abiapuntua.

Amaitu aurretik, pare bat berba aurkezpenean estreinatu genuen Opil Zati Bat bideoaren inguruan. Gureeskudago.net webgurean ikusgai dago bideoa, eta abadiñar askoren parte-hartzeagaz osatutako lan hori 1.850 lagunek ikusi dute bost egunean.

1.850 esker!

Abadiño Gure Esku Dago

Elisabet Puiggrós

Adi Durangaldeko emakumeok!

Aurtengo emakumeontzako bizikleta martxa badator!

Martxoak 8, Emakumeon Borroka Eguna.

Historikoki patriarkatu kapitalistak esparru pribatura kondemnatu izan gaitu. Guk horren aurrean, espazio publikoa okupatzeko deialdia egiten dugu: kaleak, plazak eta errepideak ere gureak dira!

Beraz, aurtengoa ere prestatu dugun Durangaldeko Emakumeontzako II. Bizikleta Martxa parte hartzera gonbidatzen zaitugu.

Zaldibarren hasi eta Durangoraino, geldialdiak egingo ditugu. Herri bakoitzean 10 minutuko elkarretaratzea izango da, eta buka-

tzeko, 13:30ean Durangoko Andra Mari elizpean bideo proiektzioa eta eskualde mailako elkarretaratzea burutuko da. Elkarretaratzeetan parte hartzeko gonbita luzatzen diogu Durangaldeko jendarte osoari.

Gora borrokoa feminista!

Durangaldeko txoko feminista

Maidar Muro Larizgoitia, Garazi Unzu Aldekoa, June Baonza Pagaldai, Itziar Berriozabalgaitia Eguren, Ainhoa Urrengotxea Gezala

Azalpen gutuna Navarrentzat:
Ez dira ongi etorriak!

“Datorren otsailaren 3an San Blas Eguna ospatuko dugu. Eta zalan-tzarik gabe, nekazari, mintegizain eta abeltzainek dituzten produkturik onenak ekarriko dizkigute, urtero legez. Horregatik, Abadiño-ko Udalaren izenean, azoka bisitatzea etortzeko gonbita luzatzen dizuet, gure lurak ematen duen onena eskainiko dizuegu-eta.”

Abadiño alkatearen berbak irakurri, eta herriko nekazaritzaren eta abeltzaintzaren aldeko apustu zintzoa egingo zuelako uste ustela izan genuen askok. Ustela diogu, gure luraren emariak go-raipatu eta astebeteko epea besterik behar izan ez zuelako zabor-jana zerbitzatzen duten jatetxe arrotzei oniritzia emateko.

Proiektuaz jakitun garenetik, asko eta ugariak izan dira herri-tarrok proiektu honen aurka burututako ekimenak. Hala ere, Jose Luis Navarrok ez dauka argi. Ez du multinazional horiek Abadiño eta Durangaldean izango duten eragin kaltegarriaren berri.

Abadiño gazteok, beste behin, eta berak uler dezakeen eran (itzultzaile baten laguntzaz, noski!) azalduko diogu:

Ez ditugu nahi eta ez ditugu behar:

- Egun bizi dugun eredu ekonomiko kapitalistaren sostengatzaile handienak direlako.

- Lanpostu prekarioak eskaintzen dizkigutelako; lan eskubideak urratuta, sindikatuetan afiliatzeko eskubidea ukatuta eta negoziatuz kolektiboa ahulduta, besteak beste.

- Gure auzoetako dendak eta jatetxeak kaltetu, eta lanpostuak desagerraraziko dituelako.

- Lehenengo sektoreak aldarrikatzen duen tokiko ekonomiatik eta elikadura burujabetzatik oso aldentuta daudelako.

- Bultzatzen duten kontsumorako aisialdi ereduarekin bat ez gatzelako.

Navarro, zergaitik mugatu diskurtsoa otsailaren 3ra? Egin dezagun gure herriko nekazari, mintegizain, abeltzain, dendari, tabernari, langile eta kontsumitzaileen aldeko urte osorako apustua.

Abadiño gazteok argi daukagu!

Burger King eta McDonald's ez zarete ongi etorriak!

Abadiño Ernai

Itsaso Gangoitia

Laguntzaileak:



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du




(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bixente Kapanaga, 9
48215-lurreta (Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa: 94 623 25 23
Publizitatea: 94 621 79 02
publi@anboto.org

2014ko otsailaren 28a,
12. urtea - 535. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretzi Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Joseba Derteano.
Markel Onaindia, Amaia Ugalde eta Maialen Zuazubiskar.
Maketazioa: Eider Alberdi.
Zuzentzailea:
Jon Ander Urkiaga.
Argazkilariak: Kepa Aginako, Zaloa Fuertes.

Kirola

> PILOTA

Aitor Elordi eta Asier Aspuru dira Biharko Izarrak txapelketan eskualdeko ordezkariak

Elordik lehenengoz parte hartuko du 17 urte gaz; Aspuruk iaz ezin izan zuen parte hartu, lesio baten erruz



Txapelketan parte hartuko duten pilotariak, astelehenean, Trabakua Behekoa jatetxean egindako aurkezpenean. Julen Uribe.

> JOSEBA DERTEANO

Atzo hasi zen Biharko Izarrak txapelketa, eta hiru hilean promesa gazterik onenak batuko ditu Mallabiko pilotalekuan. Parte hartuko duten zazpi bizkaitarretatik bi eskualdekoak dira: Aitor Elordi mallabitarra eta Asier Aspuru abadiñarra.

Elordik 17 urte ditu, eta lehenengoz parte hartuko du Mallabiko txapelketan: "Badakit

pilotari handiak egongo direna, baina ilusioz nago, eta ahalik eta mailarik onena ematen saiatuko naiz". Martxoaren 8an jokatuko du lehenengo partidua.

Asier Aspurementzat aurten goa da titular moduan jokatuko duen lehenengo biderra. 2012an ordezkari bi egin zituen, eta partidua bat irabazi eta bestea galdu egin zuen. Iaz titularren artean zegoen, baina Lezamako

txapelketan bere bikotea gainera erori zitzaion, eta besoko kubitua eta erradioa apurtu zituen. Sei hilabete behar izan zituen sendatzeko. Aurten, antolatzailerek aukera berri bat ematea erabaki dute: "Ilusio handia dut. Badakit ez naizela pilotaririk jokatzen izango, baina partiduz partidua joatea, eta nire maila ematea ditut helburua", adierazi du abadiñarrak. Aspuruk ere

martxoaren 8an jokatuko du lehen partidua.

Aurten 11. aldia egingo du Biharko Izarrak txapelketak, eta urteroko joko sistema bereziari eutsiko dio. 24 pilotari multzo bitan banatuko dituzte (seina aurrelari eta atzelari bakoitzean), eta aurrelari guztiak atzelari guztiekin jokatuko dute txapelketan. Multzo bakoitzean punturik gehien batutako bi aurrelariak eta bi atzelariak finaldiararako sailkatuko dira. Gipuzkoak ditu ordezkari gehien: hamabi. Bizkaiak zazpi ditu, Nafarroak lau eta Arabak bat.

Astelehenean Trabakua Beheko jatetxean egin zuten aurkezpenak pilota enpresatxo ordezkariak (Aspeko Jokin Etxaniz), txapelketan parte hartu izan duten pilotari profesionalak (Erik Jaka, Andoni Aretxabaleta, Xabier Tolosa eta Danel Elezkano), eta hainbat elkarte eta federaziotako ordezkariak batu zituen. Mallabiko alkate Mila Mondragon ere bertan egon zen.

Bihar, 17:00etan, bigarren jardunaldia jokatuko dute Mallabian. Lehenengo partiduan Dorronsoro eta Imaz lehiatuko dira Artega eta Iturriagaren aurka. Bigarrenegun, Santxo eta Arratibel, eta Ugalde eta Lasa jardungo dira.

tzen kontuari bueltak ematen". Ideia hori oinarri hartuta, egitasmoa prestatu, martxan ipini eta lau lagunek eman dute izena oraingoan. Asmoa da apurka-apurka hasi, eta atletismoan hasteko prestakuntza orokor bat eskaintzea: korrika egiteaz gainera, teknika landu, hesien bidezko mugikortasuna jorratu, eta giharrak lantzeko ariketak egingo dituzte, adibidez. Ondoren, baten batek modalitate espezifiko batean trebatu gura badu, beste egun batzuetan entremendu pertsonalizatuak eskaintzea da helburua.

Astean egun bitan

Oraingoan, astearte eta ostegunetan batzen dira, 17:00etatik 18:00etara, Durangaldeko Amankomunazgoak Durangoan dituen azpiegiturretan. Asmoa da, jende berria gehitzen doan heinean, egun bietako goizetara ere zabaltzea. Izen-ematea e-mailez egin daiteke: orkatzbeitia@gmail.com.

> ATLETISMOA

Atletismoan hasteko edozein adin egokia dela erakutsi gura dute

Oraingoan, astearte eta ostegunetan batzen dira



Orkatz Beitia eta ekimeneko parte-hartzaileak, martitzenean, atletismo-pistan.

> J. D.

Durango Kirol Taldeko kide den Orkatz Beitia atletak atletismoa hurreratzeko sekula ez dela berandu erakutsi gura du, joan zen astean abiatu zuen egitasmo baten bidez. "Askok uste dute atletismoan aritzeko gaztetatik hasi beharra dagoela, bestela berandu dela; baina ez du zertan horrela izan, eta ideia horrekin apurtu gura dugu. Ez dago kirola praktikatzeko hasteko adin txarrik".

Proiektuko ideiak Durango Kirol Taldearen entrenamendu batean du sorburuetako bat, edo zehatzago esanda, entrenamendu horietan zebiltzan gaztetxoekin zain zeuden gurasoen arteko komentarioetan: "Zerbait egiteko aukera eskertuko luketela adierazi zuten; hortik hasi nin-

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA**Elorrio - Gallarta**

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

MAILA GORENA**Zaldua - Lekeitio**

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**Berriz - Artibai**

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizburun.

BIGARREN ERREGIONALA**Ezkurdi - Derio B**

· Zapatuan, 17:00etan, Arripasuetan.

Iurretako B - Ariz

· Zapatuan, 16:00etan, Larrakozelaiain.

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**Iurretako - Ugeraga**

· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaiain.

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA**Elorrioko Buskantza - Aurrera Vitoria**

· Zapatuan, 18:00etan, Elorrioko udal kiroldegian.

Mallabia Tabirakolor - Egintza

· Zapatuan, 18:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

MAILA GORENA**Sapuberri - Presion Break**

· Zapatuan, 19:45ean, Landako kiroldegian.

LEHENENGO ERREGIONALA**Abadiñoako Gaztetxe - Dantzari**

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

Elorrioko Buskantza C - Zamudio

· Domekan, 12:15ean, Elorrioko udal kiroldegian.

BIGARREN ERREGIONALA**Mendibeltz - Usansolo**

· Zapatuan, 18:15ean, Landako kiroldegian.

Mallabia B - Egartsuak

· Domekan, 16:00etan, Zaldibarko kiroldegian.

Elorriko Txiki - Racing Tolosto

· Zapatuan, 15:05ean, Elorrioko udal kiroldegian.

Gu Lagunak - Presion Break B

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

> SASKIBALOA

LEHENENGO MAILA (gizonak)**Tabirako Baqué - Valle de Egues**

· Zapatuan, 17:00etan, Landako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONAL BEREZIA**Tabirako Baqué - Deusto Loiola**

· Zapatuan, 18:45ean, Landako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA**Anbotopeko - Txurdinaga**

· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran.

> SASKIBALOIA

Igotzeko hautagai sendoa dela erakutsi du Tabirako Baquek

Garaipen kopuruan parean zituen Atlético SN eta Zurt Taberna atzean utzi ditu, eta bakarrik geratu da lidergoan; Donostiako taldea xehatu egin zuen zapatuan



Tabirako Baqué emakumeen taldea aurtengo denboraldiko partidua batean. Kepa Aginako.

> JOSEBA DERTEANO

Mahai gainean kolpe sendoa eman du, eta mailaz igotzeko hautagai nagusienetakoa dela erakutsi zuen Tabirako Baqué emakumeen talde nagusiak joan zen zapatuan. Onenen arteko berdinketa hautsi zuen asteburuan, eta orain bakarrik dago lidergoan.

Joan zen asteko jardunaldia hasi aurretik hiru taldek garaipen kopuru bera zuten sailkapenearen buruan. Horietako

bi, Tabirako Baqué eta Atlético San Sebastian, elkarren kontra neurtu ziren Landako kiroldegian, eta Durangoko taldeak xehatu egin zuen Donostiako: 63-45. Atlético San Sebastianek 12 garaipen zeramatzan errenkadan. Hirugarren taldeak, Azpeitiko Zurt tabernak, aldiz, justuan, baina galdu egin zuen Loiola Deustu Unibertsitatearen aurka: 62-60. Zortzi jardunaldi falta dira liga erregularra amaitzeko.

Asteburu honetan Tabirakok Getxoren kontra jokatu behar zuen partidua martxoaren 16ra atzeratu dute, eta, beraz, ez du norgehiagokarik izango asteon.

Tabirako Baqué gizonen talde nagusia ere martxa onean dabil. Sei garaipen segidan zeramatzala, bolada on hori Bide Bide Donosti liderrak hautsi zion. Baina harrezkero jokatu dituzten biak irabazi egin dituzte, horietako bat sailkapenean gainetik duten Ordiziako taldearen aurkakoa.

> MENDIKO BIZIKLETA

Mendiko bizikleta martxa antolatu dute Elorrion

Domekan, XV. Mendi-bizikleta Ibilaldia egingo dute Elorrion. Hiru ibilbide egongo dira: laburrenak 18 kilometro ditu, ibilbide ertainak 24 kilometro, eta luzeenak 31 kilometro (1.100 metroko desnibela). Herriko plazan hasiko da martxa, 10:00etan. Parte hartu nahi dutenek ordu bete lehenagotik izena emateko aukera izango dute. Federatuek euro bi ordaindu beharko dute, eta federatu gabekoek 15 euro. Amaieran jan-edana egongo da parte-hartzaile guztientzako.

> PILOTA

Igor Azpirik txapel bi irabazi ditu asteburu berean

Joan zen barikuan Lezamako pilota txapelketa irabazi zuen, eta zapatuan Ortuellakoa

Joan zen bariku eta zapatuan pilota txapelketa bana irabazi zituen Igor Azpiri (25 urte, Elorrio) pilotariak: Lezamako eta Ortuellako txapelketak.

Lezamako finalean, Kerman Galartza eta biek 22-18 menderatu zituzten Asier Agirre eta Jose Luis Tabar nafarrak. 10-1 irabazten hasi ondoren, aurkariek erreakzionatu eta 18-17 hurreratu ziren. Azken txanpan

hobeto ibili zen bikote irabazlea. Egun bat geroago, Ortuellako Pablo Elortegiren Oroimenezko XXV. Txapelketako finala jokatu eta irabazi zuen Azpirik. Aitor Irueta gernikarragaz bikotea osatuz, 22-15 nagusitu zen Aitzol Dorronsoro eta Gaizka Lopezen aurka. Zortzinako berdinketaren ostean, ihes egitea lortu zuten: 15-8. Handik aurrera aldeari eutsi zioten.

> KORRIKA

Ariznabarreta eta Lariz onenak duatloian eta mendiko eskian

Mugarra Triatloi Taldeko kide diren Oier Ariznabarretak eta Iñigo Larizek Euskadiko txapelketak irabazi dituzte duatloian eta mendiko eskian. Ariznabarretak Mungian jokaturako duatloia irabazi zuen, eta esprint mailako Euskadiko Txapelketa ere jokoan zegoenez, txapela jantzi zuen. Duatloi berean, Mugarra Triatloi Taldeko Irene Loizatek eta Lide Azuetak junior eta kadete mailetakoko probak irabazi zituzten. Neska guztien puntuak batuta, taldekako onenak izan ziren.

Larizek, aldiz, mendiko eskiko Karolo-Bandres memoriale irabazi, eta Euskal Herriko txapeldun berria izatea lortu du.

> SOKATIRA

Zilarra irabazi du Abadiñok 560 kilora artekoan

Orain hurrengo Munduko Txapelketan zilarrezko (560koan) eta brontzezko (600ekoan) domina bana irabazi zuen Abadiñok. Joan zen asteburuan, Irlandako Castlebar herrian, jokatu den aurtengoan, 560 kiloko domina errepikatu du, eta 600ekoan, atarian geratu da. Edu Mendizabal entrenatzaileak adierazi duenez, "pena apur bat geratu zaigu, hainbat bider finalen edo dominen atarian geratu garela, baina, oro har, pozik gaude gure lanagaz".

560koan orain urte biko finala errepikatu zuten Coventry Cluk taldeak eta Abadiñok, eta Irlandako taldea berriro nagusitu zitzairen. 600ekoan laugarren geratu ziren: Clonmany taldeak kanporatu zuen Abadiño finalerdietan. Pisu berean, baina Euskadiko Herri Kirol Federazioa ordezkaturata ere lehiatu zuen Abadiñok. 600ekoan, beste behin, finalerdietan kanporatu zituzten. Taiwango taldeak irabazi ziren.

ADITUAREN TXOKOA



Gotzon Gomez

Errugbia

Eskola kirolaren helburua

Gaur egun inork ez du kolokan jartzen kirola egitearen onura. Gizarte azeleratuan, askorentzat ihes egiteko, oreka berreskuratzeko eta lasaitasuna izateko bidea bihurtu da kirola.

Hori guztia onartuta, zein izan beharko litzateke eskola kirolaren helburua? Galdera inportantea guraso eta hezitzaile garentzat. Kirola heziketaren oinarri garrantzitsua izan beharko litzateke. Kirolaren bidez gizarteratze prozesuan urrats garrantzitsuak ematen dira, besteak ezagututa eta besteekin jokaturata.

Besteak errespetatu eta ekinean gozatzeko aukerak bideratu beharko genituzke, eta ez askotan bultzatzen dugun garaipena. Helburua sekula ezin daiteke izan irabaztea, behintzat, hasierako urte horietan.

Eskola kirola, garapenaren hasierako fasea litzateke, hainbat kirol ezagutu, eta komunikabideetan agertzen ez diren kirolak praktikatzeko eta dastatzeko abagunea; horretaz gain, ume/gazte bakoitzak dituen dohainak eta mugak ezagutu eta onartzeko hasierako bidea ere bada eskola kirola.

Besteak, eta ez aurkariek, jokoan duten garrantziaz jabetzea landu beharreko oinarria litzateke. Beste aldekoak ez badaude, ezinezkoa da jokatzeko; bakarrik jokatzeko oso aspergarria da, eta horregatik ezinbestekoa da bestearen papera onartu eta errespetatzea.

Hor dago gakoa: besteekin jokatu behar dutela ulertzea, aurkaria zaintzearen beharraz ohartzea, edota epailearen erabakiak onartzea; hor dugu kirolaren benetako balioa. Hori lortuz gero, etorkizuneko gizarteak eskertuko du egindako ahalegina.

artekalea 14 durango
946 810 776
info@hitliburudenda.com



hitz

liburudenda

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

M8! Emakumeen Nazioarteko Eguna



Durangaldeko emakume aitzindariak

Arreta psikologikoa eta juridikoa emakumeentzat
946 200 492



Martxoak

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Durango 2014



Martxoak 3-14 Andragunean (Pinondo Etxea)

Erakusketa 'JABEKUNTZA ERRETRATUAK Sareak ehunduz Palestinako emakume errefuxiatu eta euskaldunen artean'. UNRWA Euskadi.

Martxoak 12 19:00 Aurkezpen-hitzaldia eta bisita gidatua. Andragunean.

Martxoak 5

19:00 Hitzaldia 'Género y humor'. Virginia Imaz. Antolatzaileak: Andereak, emakumeenganako biolentziaren aurkako elkarteak. Pinondo Etxean (sarrera doan).

Martxoak 7, Andragunearen 5. Urteurrena

19:30 Jai hasiera Alde zaharretik ibilbidea. Jai Andragunean.

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguna

15:00 Bazkaria Plateruenen. Tikitak Plateruenean eta Andragunean, martxoaren 4 arte. Prezioa: 24 € (menu begetarianoa nahi izanez gero abisatu tiketa hartzerakoan).

18:30 Manifestazioa Irteera Santa Ana plazan.

Antolatzaileak: Plataforma Feminista.

19:30 Jai Plateruenean. Batukada, txalaparta, animazioa 'Teatroquemadura', dantza afrikarrak.

20:00 Kontzertua 'Poema Hipokondriakoak'. Baxuko Taldea

<http://baxuko.blogspot.com.es>

(ekitaldi hauek doan izango dira)

Martxoak 10-14

Erakusketa gidatua ikastetxeentzako: 'Emakumeak zientzian' San Agustin Kultur Gunean.

Martxoak 13

20:30 Antzerkia 'Juana la loca, la reina que no quiso reinar'. Histrión Teatro. San Agustin Kultur Gunean.

Martxoak 16

11:30 Kamisetak banatzea. Animazio globoekin.

12:30 Lilakrosa Berdintasunaren aldeko IX. Ibilbidea. Ezkurdi Plazan.



AUKERA
BERDINTASUNA
IGUALDAD DE
OPORTUNIDADES
DURANGO
Udalak - Ayuntamiento



andragunea
Emakumeen Espazioa
casa mujer
Espacio de Encuentro

San Agustin
KULTUR
GUNEAN
DURANGOKO UDALA



CENTRO
CULTURAL
San Agustin
1970. de DURANGO



Maistra, euskaltzalea eta idazlea izan zen Julene Azpeitia.

Julene Azpeitia: Haurrak euskaraz irakurtzera animatu zituen maistra

Euskarazko haur literaturan zegoen hutsunea betetzen saiatu zen Julene Azpeitia

> MARKEL ONAINDIA

Zer egin euskaraz irauteko eta gure hizkuntza umeengan biziberritzeko? Hori izan zen Julene Azpeitiaren ardura edo kezka nagusia. Euskaltzaletasunak eta hezkuntzarako senak eroan zuten hausnarketa horretara. Zumaian jaio zen, baina Euskal Herriko hainbat lekutan bizi izan zen, tartean, Durangon.

Maistra titulua lortu zuen eta Aizarnazabalen hasi zen eskolak ematen. Handik Bizkaiko ikastoletara igaro zen, eta Abadiñoako Mendiolan eta Traña-Matienan ibili zen, besteak beste. Hori zen bere lanbide gogokoena. "Mila bider jaioko banintz ere, maistra izango nintzateke", aipatzen ei zuen sarritan. Mexikon erbesteratuta egon zen lau urtez, baina handik bueltan irakasle jarraitu zuen.

Ipuin, eskola, idazlan eta irratsaioen bidez euskara hedatzea izan zen Azpeitiaren helburua

Ezkondu eta Durangon bizi izan zen, Juan Itziarko auzoan. 60ko hamarkadan hezkuntza utzi, eta idazketa lana lehenetsi zuen.

Umeentzako idazten

Umeentzako euskal literaturan zegoen hutsunea betetzen ahalagindu zen Azpeitia. *Amandriaren altzoan*, *Irakurri matte*, *Zuentzat*, *Goizeko izarra* eta *Auntza baratzan* dira bere idazlanetako batzuk. Haurrak irakurtzen eta idazten hasteko metodo bat ere sortu zuen: *Umien adiskidea*. Umeentzat egokitutako idazkera pedagogikoa lantzen zuela diote adituek.

Horretaz gainera, nobela pare bat eta sukaldaritza liburu bat argitaratu zituen, eta sasoi hainbat aldizkaritan idatzi zituen artikuluak, *Euzkadin* eta *Zeruko Argian*, esaterako. Ipuin, eskola, idazlan eta irratsaioen bidez euskara hedatzea izan zen bere helburua.

Durangon omendua

Umeei begira euskararen transmisioan buru-belarri ibili zen Julene Azpeitia, eta lan hori kontuan izan zuten Durangon.

1983an bere omenezko literatur lehiaketa ipini zuen martxan udalak, Joan Antonio Aroma zinegotziaren ekimenez. Lehenengo hiru edizioetan ez zuten kaleratu saritutako ipuinik, eta 1987an hasi ziren irabazleen lanak argitaratzen. 1990 eta 1998 urteen artean Berbaro euskara

Haurrak irakurtzen eta idazten hasteko metodo bat ere sortu zuen: 'Umien adiskidea'

elkartek antolatu zuen lehiaketa. Zumaian ere antolatzen dute bere omenezko lehiaketa.

Bestalde, 2004an Durangoko Udalak bere izenagaz zabaldu zuen Haurreskola.

Euskaltzaindian ohore

Euskararen arloan egindako lanagatik saritua izan zen Julene Azpeitia. Lehenengo Euskaltzain urgazlea izan zen, eta 1975ean ohorezko euskaltzain izendatu zuten.

JULENE AZPEITIA

Zumaia, 1888 - Bilbo, 1980

Irakaslea, euskaltzaina eta idazlea

Haurren mundua eta euskaraz uztartzea izan zen bere kezka nagusienetakoa, eta idatzi zituen liburu gehienak

sektore horri zuzendutakoak izan ziren. Durango-ko Haurreskolari bere izena ipini zioten.

Martxoak 8

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Martxoak 4tik 12ra Argazki Erakusketa Iturrin

Emakumea eta kirola

Martxoak 7

Ipuin kontalaria Elorrioko Liburutegian

"Txokolatezko ipuintxoak" Belen Azkarate, Oihulari Klown

17:00, 3-5 urte bitarteko umeentzat

17:30 6-9 urte bitarteko umeentzat

Martxoak 8, 18:00etan Plaza inguruan "BEGIAK ZABALDU" Antzezlanak, Arrapaladan Elorrioko Antzerki Taldea

Martxoak 8, 22:30ean Zinema Arriolan

"La vida de Adelle" Cannesko Zinemaldiko Urrezko Palma

Martxoak 13, 19:30ean Dokumentala Iturrin

"Rafea y el sol, la lucha de una mujer por cambiar su destino"*

JBA: Arabieraz, gaztelaniazko azpitoluekin

النسخة الأصلية باللغة العربية، مترجمة باللغة الإسبانية

Martxoak 19 18:30ean Hitzaldia/ Charla

"Emakumezkoen Alarguntasuna, azterketa sozio-demografikoaren aurkezpena"

Berdintasuna IGUALDAD Berdintasuna IGUALDAD Berdintasuna IGUALDAD



Elorrioko udala

Erbesteko borrokalari antifaxista durangarra

Durangoko bonbardaketaren ostean erbestera, Frantziara, ebakuatu zuten Benita Uribarrena, 15 urte zituela; nazien kontrako erresistentzian borrokatu zuen han

> ITSASO ESTEBAN

Durango 1936 elkarteak antolatzen duen *Agurrik gabeak* ekimenari esker, Marina Fuster Uribarrena alabaren ahotik zabaldu zen Benita Uribarrena Bollainen bizitzaren eta ibilaren berri. Frantzian hil zen Benita Uribarrena, urtebete lehena, 2011n. Uribarrena bezalako emakumeek faxismoaren kontra egindako lan isildua gogoratzeko omenaldia egin zuten, 2012ko urrian, Durangoko San Agustin kulturgunean.

Durangoko 1937. urteko bonbardaketaren ostean erbestera, Frantziara, ebakuatu zuten Benita Uribarrena, 15 urte zituela. Amagaz eta ahizpagaz batera, frankismoaren kontra

ko erresistentzian borrokatu zuen, erbesteran zegoela. Alderdi komunistako kide izan zen klandestinitatean. Marina alabak Durangoko ekitaldian gogora ekarri zuenez, eskualde hartako erresistentziako emakume bakarra izan zen Uribarrena, eta gerra amaitu zenean, domina jaso zuen egindako lanagatik.

Askatasunaren alde

Lan handia egin zuen, Espainian arriskuan zegoen jendeari, presoeri eta diktadurak heriotza zigorrera kondenatutakoei, adibidez, Frantziatik babesa ematen: bidaia asko egiten zituen, bere burua arriskuan ipinita. Erbesteratutako emakumeen jabekuntza bultzatzeko helbu-

ruz ere jardun zuen. Alabaren arabera, "askatasunaren aldeko borroka" berba asko egiten zuen Uribarrenak.

Lau seme-alabetatik gazteena zen Benita Uribarrena. Amak, Benita Bollainek (Durango, 1887-El Soler, 1964), Durangoko Ezkurdiko kioskoan egunkariak saltzen zituen, eta aita trenbideetako langilea zuen. Orduko andre gutxik bezala, irakurtzen eta idazten bazekien Benita Bollainek, eta errepublikazalea zen. Egunkarietatik jasotako informazioa zabaldua, Errepublikak etorriko zela iragarri zien Uribarrenak 1931ko apirillean egunkaria erosi zioten herrikideei. Iragarpen horrek astebeteko espetxealdia ekarri zion.



2012an egin zioten omenaldia.

BENITA URIBARRENA BOLLAIN

Durango, 1922
Perpignan, 2011
Frankismoaren kontrako erresistentzian borrokalari
Lan handia egin zuen, Espainian arriskuan zegoen jendeari, presoeri eta diktadurak heriotza zigorrera kondenatutakoei, mugaz bestaldetik babesa emanda.



Omenaldia egin zieten 2009an, Durangon, erakusketa zabaldua.

Aitzindari emakumeen kirol profesionalean: erraketistak

XX. mendearen erdialdean erraketista profesional gisa jardun ziren Durangaldeko hainbat emakume

> I.E.

1940ko eta 1950eko hamarkadetan sasoiak gizarateak inposaturiko ereduak gainditu, eta erraketista gisa jardun zuten Euskal Herriko hainbat emakumek kirol profesionalean. Espainian zehar partiduak jokatu zituzten emakume horiek, baina baita Kuba edo Mexikon ere. Denbora gutxian famatu egin ziren, eta pilotalekuak ikuslezu lepo betetzen zituzten. Ondorioz, Espainiako hainbat hiriburutan pilotalekuak zabaldu zituzten.

Eibarren hiru erraketista eskola egon ziren sasoi batean, eta jokalaririk onenatariko batzuk eskualdekoak izan ziren: Ermu, Durango, Iurreta, Zaldibar edo Mallabikoak, esaterako. Eibarrera joaten zen Begoña

Ereñaga durangarra, hango pilotalekuan jokatzera. Baina Euskal Herrian baino aukera gehiago zituzten emakume pilotariak hemendik kanpo, eta 15 urte zituela Sabadellera joan zen jokatzera Ereñaga. Mari Garate, Lutxi Arrube, Pilar Garitaonaindia *Azkoitia* eta Diana Garitaonaindia *Txikita de Mallabia* izan ziren Durangaldeko beste erraketistetako batzuk.

Emakume haien historia biltzen zuen erakusketa paratu zuten, Durangoko Arte eta Historia Museoa, 2009. urtean.

ERRAKETISTAK

1940-1950

Eibarren hiru erraketista eskola egon ziren sasoi batean, eta jokalaririk onenatariko batzuk

Durangaldekoak ziren. Baina asko hemendik kanpo joan ziren jokatzera.

EMAKUME LANGILEAREN XVIII. ASTEA 2014



MARTXOAK 7, barikua
AFARIA

ETA DANTZALDIA

21:30 Goierriko auzo-etxean

21:15 Udaletxe aurrean

Autobusa doan.

Txartelak Martxoaren sera arte salgai, Karobin, Olgan eta Casteten.

Prezioa: 20euro.

MARTXOAK 8, zapatua

EMAKUME LANGILEAREN EGUNEKO MOSAIKO JENDETSUA

14:00 Udaletxe plaza

Etorri eta parte hartu aterako dugun argazkian!

MARTXOAK 8 eta 9

HELMUGA ELKARTEAK EGINDAKO LANEN ERAKUSKETA

Zapatuan: 11:00-13:00 / 17:00-19:00

Domekan: 11:00-13:00

Liburutegi zaharrea

MARTXOAK 25, martitzena

EGUN-PASA VIANARA

8:30 Udaletxe plaza Patxaran la Navarra, Santa Maria eliza eta Balcón de Toros ikustera.

HELMUGA antolatuta.

Izena emateko telefono

honetara deitu: 688 613 410



Margarita María López de Maturana misiolari bidaiaria

Berrizko Mesedeetako komentua misiolarien institutu bilakatu zuen Maturanak; 2006ko urriaren 22an Bilboko Donejakue museoan dohatsu izendatu zuten

> JONE GUENETXEA

Margarita María López de Maturana bilbotar gazteak 16 urte zituen Berrizko Vera Cruz komentura heldu zenean. Nautikako ikasle bat ahaztu zezan bidali zuen hara amak. Erabaki hark López de Maturanaren eta beste ehunka mojen bizimodua aldatu zuen. Bokazioa aurkitu zuen bertan, eta moja izatea erabaki zuen. Era berean, Leonor ahizpa bikiarekin hartu-eman estua izan zuen. Leonor Argentinan izan zen misiolari.

Maturanaren ahaleginari esker, ordura arte klausurako komentua zena misiolarien institutu bilakatu zen. Mesedeetako Misiolarien Kongregazioa sortu zuen. 1926an, sekula bidaiatu bako mojen espedizio bat abiatu zen Txinara. 1927an, beste bidaiata batean, Mikronesiara joan ziren, eta 1928an Japoniara. Horrela abiatu zuten misiolarien zabal-kundea munduan. Misioetan, batez ere ebanjelizazioan jardun zuten, emakumeei hezkuntza eskaintzen, eta umezurztegi eta anbulatorioak sortzen.

Museoa Berrizen

2013ko urtarrilean Margarita Maturana dohatsuari eskainitako museoa inauguratu zuten Mesedeetako komentuan. Mario Iceta gotzainak parte hartu zuen ekitaldian. Mesedeetako komentuak dokumentazio ugari zuen. Margarita Mariak misioetatik idazten zituen gutunak, argazkiak, filmak, aldizkariak,

Margarita dohatsuari buruzko museoa ikusgai dago Mesedeetako komentuan

liburuak eta baita sasoi hartako komentuko eta misioetako agiri asko ere. "Ebanjelizaziotik harago, pertsonen duintasuna aldarrikatu zuen, emakumeena bereziki", azaldu dute museoa osatzen jardun duten adituek. Bilbotarraren printzipioak, espiritualtasuna, helburuak eta lorpenak ezagutzera eman

guran sortu zuten, iaz, museoa. Arantza Urrezti (Berriatua, 1936) da museoaren arduraduna. "Guk geneukan material guztiarekin ez genekien zer egin, eta gotzaindegian, Bilboko Elizmuseoak lagundu diezagu-keela esan ziguten". Informazioa biltzen hasi ziren horrela. Bilbotar fededunari buruz, bere bizitzan lau bidaiata egin zituela azaldu du Urreztik. *Viaje misionero alrededor del mundo* liburu idatzi zuen gainera.

1934ko uztailaren 23an, 50 urte egiteko egun batzuk falta zirela hil zen Margarita María López de Maturana. 2006ko urriaren 22an Bilboko Donejakue katedralean dohatsu aitortu zuten.

Gaur egun

Taiwanen, Mikronesian, AEB-etan, Japonian, Filipinetan, Espainian, Erdialdeko Amerikan, Hego Amerikan eta Afrikan dihardute -17 herrialdeetan- Mesedeetako misiolariak. 400 pertsona inguru dabilta lanean, 130 inguru Espainiako estatuan, eta gainerakoak misioetan.

MARGARITA MARÍA LÓPEZ DE MATURANA

Bilbo, 1884-Donostia, 1934

2006ko urriaren 22an dohatsu aitortu zuten

1903. urtean Margarita María López de Maturana, bataio izenez Pilar, Berrizko Mesedeetako mojen

kongregazioan sartu zen. Klausurako komentua misiolarien institutu bilakatu zuen.



Margarita María López de Maturana

Martina Ibaibarriaga Napoleonen tropen aurka

Napoleonen tropen aurka borrokatu zuen Martina Ibaibarriagak gizonezko jantzita, eta Manuel Martínez izenagaz; Felix Asenjo tenienteagaz ezkondu zen

> J.G.

María Martina Ibaibarriaga Elorriaga Berrizen jaio zen, 1788ko urtarrilaren 26an, eta San Joan Batailatzailearen elizan bataiatu zuten. Aita, Jose Ibaibarriaga Gerena-Amesti, gerrikaiztarra eta ama, Magdalena Elorriaga Arteaga, berriztarra zituen. Aita botikariak Bilboko Zazpikaletan zuen saltokia. 1808ko abuztuaren 16an Frantziako armada Bilbora sartu zen. Arpilatzen ari zirela, botikan sartu ziren, eta Martinaren aita eta neba hil zituzten. Gertaerak Martinaren bizitza markatu zuen. Elena eta Ramona ahizpen aurrean mendekua zin egin zuen, nebaren arropak jantzi zituen eta Napoleonen tropen aurka borrokatzeko izena eman zuen. Manuel Martínez izan zen bere ezizena. Gama-

rran ondo borrokatu ondoren, kapitain bilakatu zen. Merino apaizaren partidarekin Burgosen, eta Renovalesekin Zaragozako setioan borrokatu zuen.

Barbastrotik gertu larri zauritu zuten, eta botikariak bere sekretua deskubritu zuen, hau da, Manuel Martínez kapitaina Martina Ibaibarriaga emakumea zela. Felix Asenjo bere agintari izandako tenienteagaz ezkondu, eta Oñara joan ziren bizitzera, senarra hangoa baitzen. Seme bat izan zuten, Francisco Asenjo Ibaibarriaga. 1849ko ekainaren 6an hil zen Berriztarra.

Gasteizen Ibaibarriaga Koronela izeneko kalea Martinaren omenezkoa da. Gainera, bere bizitzan oinarrituta *Martina, Guerrillera* liburua kaleratu du Ascensión Badiolak.



Martina Ibaibarriaga.



EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK

MARTXOAK 6 | BARIKUA
19:00 "Berrizko emakumeen ahozko historia (1937-1975)"
Liburuaren aurkezpena.
Kultur Etxean.

MARTXOAK 7 | BARIKUA
18:30 Argazki erakusketa.
22:00 "La vida de Adèle"
Filma. Kultur Etxean.

MARTXOAK 8 | ZAPATUA
12:00 V. Añeketan
Herri lasterketa.
Izen-ematea doan martxoaren 7ra arte, udaletxean, kiroldegian edo berdintasuna@berriz.org helbidean. **Itteera:** Berrizburu aisialdi parkea.
19:00 Elkartaratzea
Adierazpen instituzionalaren irakurketa. **Urriaga plaza.**
20:00 "Tre-men das"
Antzerkia. Kultur etxean.
Lucia Álvarez, María Casal, María José del Valle.
Iraupena: 55 min.
Hizkuntza: Gaztelania
Sarrerak: 5,00€ Kultur Etxean.

MARTXOAK 12 | EGUAZTENA
20:00 "Emakumea film laburrean" Bilduma.
Kultur Etxean. Jatorrizko hizkuntza eta azpitoluak euskaraz (Doan)

MARTXOAK 14 | BARIKUA
20:30 "Ez da kasualitatea"
Bertsu saio musikatua.
Kultur Etxean.
Uxue Alberdi, Onintza Enbeita, Alaia Martín eta Miren Amuriza.
Gai-jartzailea: Maite Berriozabal
Iraupena: 80 min.
Hizkuntza: Euskara
Sarrera: 5,00€

MARTXOAK 26 | EGUAZTENA
20:00 "El caso Rocío"
Dokumentala. Kultur Etxean.
Jatorrizko hizkuntza eta azpitoluak euskaraz.

MARTXOAK 29 | ZAPATUA
20:00 "Santa Rita"
Kontzertua. Kultur Etxean.

MARTINA IBAIBARRIAGA

Berriz, 1788-Oña, 1849

Manuel Martínez izenagaz militarra izan zen

Frantziako armadak aita eta neba hil zizkion, eta mendekua zin egin zuen.

Nebaren arropak jantzi, eta Napoleonen tropen aurka borrokatu zuen.



Berrizko udala - Berdintasun Zerbitzua
946 824 525
berdintasuna@berriz.org - www.berriz.org





Pilar Zubiaurrek 30 urtetik gora eman zituen deserrian.

PILAR ZUBIAURRE

Garai, 1884-Mexiko, 1970

Emakumeen lehen elkarte kulturalako sortzaileetakoa

Madriren emakumeen lehen elkarte kulturalako (Lyceum Club Femenino) sortzaileetakoa izan zen, eta bertako literatura arloko arduraduna 1928tik 1932ra

Pilar Zubiaurre: oraintsu arte itzalean egon den intelektual garaitarra

Literaturari eta kulturari egindako ekarpenek ez zuten merezitako oihartzunik izan urte askoan

> JOSEBA DERTEANO

Orain hiru urte Iker González-Allende Nebraskako irakasleak argitaratutako *Pilar Zubiaurre: Evocaciones, Artículos y Diario* izan zen beren-beregi Zubiaurreren bizitza eta lana jaso zituen aurreneko liburua. Ordura arte, historiak ahazturan edukia zuen. Errepublikasasoian Madrilgo mugimendu kulturalako partaide izan zen. Literaturaren gainean hausnartu eta idatzi zuen, eta sektore feministetan ere jardun zuen. González-Allenderen ustez, "20ko eta 30eko hamarkadan euskal kulturaren zein Espainiako kulturaren zeregin garrantzitsua izan zuen, baita Mexikon deserriarata egon zela ere".

Pilar Zubiaurre 1884an jaio zen, Garain. Gaztetan Frantzia eta Ingalaterra bisitatu zituen bere nebekin batera (Ramón eta Valentín margolariak), eta bertan artista asko ezagutu zituen. Bere anaiei bitartez, Espainiako XX. mendeko lehen hereneko giro kulturalan mur-

gildu zen. Madriren *Los sábados de Zubiaurre* izeneko tertuliak antolatu zituen, eta sasoko elite intelektuala joaten zen tertulia horietara: José Ortega y Gasset, Pedro Salinas eta Diego Rivera, adibidez. Benito Pérez Galdos eta Federico García Lorca idazle ezagunekin ere izan zuen tratua, eta Lorcak *Tres ciuda-*

Madriren emakumeen lehenengo elkarte kulturalako sortzaileetakoa bat izan zen Zubiaurre

des poema saila eskaini zion. Emakumeen lehenengo elkarte kulturalaren (Lyceum Club Femenino) sortzaileetakoa bat izan zen, eta bertako literatura arloaren arduradun izan zen 1928tik 1932ra. Elkarte hori euren sorkuntza literarioak ezagutzera eman gura zituzten emakumeen topagune bihurtu zen. Urte haie-

tan Ernestina Champourcin eta María de Maeztu idazleekin hartu-emanaren sendotu zuen Zubiaurrek.

Mexikon, deserrian

Gerra hastean, Pilar Zubiaurrek eta bere senar Ricardo Gutiérrez Abascalek (Madrilgo Arte Garaikide Museoko zuzendaria eta arte kritikari ezaguna) ihes egin behar izan zuten, eta Mexikon bizimodu berriari ekin zioten. Erbesterratu askoren antzera, nostalgia izan zuen bidelagun, eta egoera horrek asko baldintzatu zuen Zubiaurreren sorkuntza. Mexikoko *Euzko Deyan* idatzi zituen artikulua batzuk. Bere idatzi askotan ohikoak dira Euskadiko paisaiarekiko oroitzapenak.

Malenkonia horren ondorioz, hainbat bider bisitatu zituen Euskal Herria eta Espainia urte haietan. 1963an senarra hil zitzaionean bere bisitak urteroko hitzordu bihurtu ziren 1970eko ekainaren 24an Mexikon hil zen arte. Gaur egun, Garain dago ehortzita bere gorpua.

Pilar Zubiaurre bere anaia bien itzalean egon zen beti. Ramón eta Valentín ziren arreta publikoa erakartzen zutenak. Bere aita ere Madrilgo errege kaperako musika zuzendaria izan zen. Bere ekarpen literarioa murriztu den arren, artikuluek emakume kultua eta sormen literario handikoa dela bistaratzen dute.

El Salvadorren hezkuntza arloan lan sakona egin zuen Begoña Sopelanak

Luzaroan egindako lanari esker, orain analfabetismo bako herria da Las Vueltas



Begoña Sopelana El Salvadorren.

> J.D.

Begoña Sopelana iurretarra aitzindaria izan zen Euskal Herrian kooperazio ekimena, eta El Salvadorren eman zituen 20 urteek azterna sakona utzi dute Las Vueltas herriko bizilagunen artean. Eta urte haietan El Salvadorren hezkuntzaren

arloan egindako lana ez dute ahaztu bertakoek. Horren isla da, 2012koa azaroan, Las Vueltas analfabetismo bako herri gisa aldarrikatu zutenean, adierazpen horri Begoña Sopelana izena ipini ziotela.

Iazko azaroan Rosa Cándida Alas de Menjívar herri ho-

rrerako alkatea Iurretan izan zen. Sopelanak irakurtzen eta idazten irakatsi ziola adierazi zuen: "Emakume eta alkate moduan herrian dudana lidergoa Begoñak ereindako haziaren fruitua da".

Lehen bidaia 1968an

Sopelana 1968an joan zen lehenengo El Salvadorrera. Ondoren, 1977an, Fe y alegría erakundera batu (jesuitek babes-tutakoa) eta berriro itzuli zen, eremu marjinetuetan ikastetxeak sortzeko helburuz. 1980an gerra zibila hasi zen El Salvadorren, eta hurrengo lau urteetan errefuxiatuei laguntzen ere jardun zuen.

1993an Euskal Herrira itzuli behar izan zuen aita eta ama zaintzeko, baina harrezkero Hirugarren Mundua eta Pakea GKEaren bidez hartu-emanetan jarraitu zuen El Salvadorregaz. El Salvadorretik helarazten zizkioten beharrez eta eskararak kontuan hartuta, hainbat proiektu sortzen lagundu zuen hemendik. Esaterako, genero berdintasunaren aldeko ekimenak sustatzen lagundu zuen.

BEGOÑA SOPELANA

lurreta, 1944-lurreta 1999

Las Vueltas herrian ikastetxeak sortzen jardun zuen

Aitzindaria izan zen Euskadin, kooperazio ekimene-

tan. El Salvadorren hezkuntza sustatzen jardun zuen.

MARTXOAK 8
IURRETA - 2014

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

MARTXOAK 5 (Epatua) 18:30 Ibarretxe kultur etxea
"Femeninos usos de la literatura"
Hizlaria: Josune Muñoz (Skolastika)

MARTXOAK 7 Ibarretxe kultur etxea
18:30 - Adierazpen Instituzionalaren Irakurketa
19:00 - BIDEO-FORUMA "LA BICICLETA VERDE"
Moderatzailea: Marina Sanja Coloma

MARTXOAK 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna
20:45 - Autobusa - Bidebarrieta kaleko gelfokia
EMAKUMEENTZAKO AFARIA MUSIKAZ ALAITURIK
Autobusa jarriko da Golurira igoteko / Leku-kopuru mugatua
21:30 - AFARIA - Ikuspegi Jatelxea (Goluria)
Txartelak salgai: otsailak 17tik 27ra
Argibide gehiago 616 490 506 edo 946 200 34 telefonoan

MARTXOAK 10 18:15 Ibarretxe kultur etxea
TAILERRA Emakumeen literatura tailerra
"Escritoras Norteamericanas del siglo XIX"
Ana Arisqueta (Skolastika) (Aldez aurretik izena eman)



MARTXOAK 11 18:30 Ibarretxe kultur etxea
HITZALDIA "Cómics femenino actual"
Hizlaria: Josune Muñoz (Skolastika)

MARTXOAK 14 19:00 Ibarretxe kultur etxea
ANTZERKIA "La Bodeguilla" Gora Gora antzerki taldea

Argibide gehiago: 946 200 342 telefonoan






Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behe • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIJUAN

- **ABADIÑO-MUNTSARATZ:** Berria. Estreintzeko. Logela 2, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komun 2. Garajea eta trasteleku. 600€.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- **ARTEKALEA:** 8 etxebizitzaren eraikuntza hastera goaz. Logela 2 eta logela bakarrekook. Trastelekuarekin. 140.000€-tik aurrera.
- **DURANGO:** Logela 2, egongela, komuna, sukaldea eta despentsa. Berrizteko. 114.000€.
- **ARKOTXA:** 3 logela, komun 2, sukaldea eta egongela. Garajea eta trasteleku.
- **ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, komun 2, egongela eta sukaldea balkoiarekin. Trasteleku eta garajea.
- **FRANTZISKO IBARRA:** 3 logela, sukaldea, office-a, komun 2 eta egongela. Garajea eta ganbara.
- **ERDIALDEAN:** 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berrizteko. Zonalde onean kokatua.
- **ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO.** Logela 2, komun 2 eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

LEKEITIO

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela terrazarekin. Garajea. Auzune pribatua. Igerileku eta pilotaleku.

ABADIÑO

- **ITURRITXO:** Logela bakarrekoo apartamentua. Sukalde amerikarra-egongela, komuna eta eskegitokia. Ganbara, garaje bikoitza eta trasteleku.

ATXONDO

- Logela 2, komuna, sukaldea balkoiarekin, egongela eta bainugela. Etxe osoak kanpora ematen du. Berria ematen du.

ZALDIBAR

- 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Guztiz berriztua. Trasteleku.

LUR SAILAK SALGAI

BERRIZ

- 10.000 m2-ko lursaila. Sarbide ona.

IURRETA

- 5 hektareako lursaila. Abeletxe bat egiteko aukera dago.

MATIENA-ABADIÑO

- 2.000 m2-ko lursaila. Lava eta fruta-arbolekin.

OLETA (OTXANDIO)

- 2.300 m2. Fruta-arbolak eta abeletxea ditu. Erreka ondoan kokatuta dagoen lursaila.

EUBA

- 3000 m2 eta 3.455 m2-ko lursailak. 2 lurzati; bakoitzean bifamiliarra eraikitzeko aukerarekin.

ABADIÑO

- Bifamiliarra eraikitzeko 1.100 m2-ko lursaila salgai.

DURANGO

- Lursail erdia familia biko etxebizitza eraikitzeko. Proiektua barne.

ZORNOTZA

- LARREA: 27.000 m2-ko lursaila.

BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

DURANGO

- Adosatua. Guztiz jantzia. Erdi berria. Estreintzeko.

BERRIZ

- **MURGOITIO**n kokatuta dagoen baserria salgai. Nekazalturismo edo landetxe izateko aproposa. Ikuspegi politik.

- **EITUA:** 5 hektarea dituen baserria. Familia biko etxebizitza eraikitzeko aukerarekin.

ETXEBARRIA

- Iturrieta. 5 hektareako baserria.

TXALETAK

- **DURANGO-ERRETENTXU:** Salgai. Adosatua, etxebizitza bakarrekook eta bikoak.
- **ABADIÑO, OTXANDIO,** etab.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- **ANDRA MARIA:** Halla, sukaldea, jangela, egongela, 2/3 logela, 2 komun eta egongelatxo.

- **ANTSO ESTEGIZ:** Halla, egongela, sukaldea, 2 logela eta komuna.

- **ASKATASUN ETORBIDEA:** halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Garajea eta ganbara.

- **BARRENKALEA:** Halla, sukaldea, egongela, komuna eta 2 logela. Ganbara.

- **EZKURDI:** Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3/4 logela eta 2 komun.

- **F.J. ZUMARRAGA:** Halla, 2 egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna.

- **JUAN ITZIAR:** Halla, egongela, sukaldea, 2/4 logela eta komuna. 2 despentsa/trasteleku eta sotoa.

- **MURUETATORRE:** Halla, sukaldea, eskegitokia, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara eta garajea.

- **PLATERUEN PLAZA:** Halla, egongela, jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Garajea eta trasteleku.

- **SAN AGUSTIN:** Halla, sukaldea, 5 logela, egongela eta 3 komun.

- **SAN IGNAZIO:** Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta komuna. Balkoia.

- **SASIKOA:** Halla, sukaldea, egongela-jangela, 3 logela eta 2 komun. Ganbara eta garajea.

- **UNDATORRE:** Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna.

- **ABADIÑO-ARLOZABAL:** Halla, egongela, sukaldea, logela 2 eta komun 2. Terraza handia.

- **ABADIÑO-FERIALEKUA:** Halla, sukaldea, 3 logela, egongela eta komuna. Balkoi handia. Ganbara eta garajea.

- **ABADIÑO-MATIENA:** Halla, sukaldea, egongela 2/3 logela eta komuna. Ganbara.

- **ABADIÑO-MUNTSARATZ:** Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Egoera onean. Igogailua.

- **BERRIZ:** Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 2 logela eta komuna. Balkoia. Jantzia. Garajea eta trasteleku.

- **BERRIZ:** Halla, sukalde jantzia, egongela-jangela, 3 logela eta komun 2. Balkoia. Erdi jantzia. Garaje itxia eta trasteleku. (Duplexa).

- **BERRIZ:** Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 4 logela eta 3 komun. Balkoi 2. Ganbara. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Garajea.

- **ELORRIO:** Berreraikitzeko etxea, lursailduna.

- **IURRETA:** halla, egongela-jangela, sukalde jantzia office-arekin, despentsa, 3 logela eta komuna. Terraza itxia eta trasteleku. Guztiz berriztatua.

- **IURRETA-ARRIANDI:** Halla, sukaldea, egongela, 3 logela eta komuna.

- **MAÑARIA:** Halla, egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 12 m2-ko trasteleku. Oso egoera onean. Igogailua. Eguzkitsua.

- **MARKINA:** Iruzubieta. 55.000 m2-ko lursaila erdi berriztatutako eraikinarekin.

- **BASERRIA LUR EREMUAREKIN SALGAI MENDATAN ETA BERRIZEN.**

- **MAÑARIAN ADOSATUAK SALGAI.**

BESTE ESKAINTZA BATZUK BULEGOAN

ETXEBIZITZAK SALGAI

EZKURDI



- 174 m2. 5 logela, egongela-jangela handia, sukalde handia, 3 komun eta bainugela. 8 horma-armairu. Balkoi 2 eta trasteleku. **340.000€.**

PLATERUEN PLAZA



- 90 m2. 3 logela, egongela handia tximiniarekin, eta komun 2. Garajea eta trasteleku. **290.000€.** Negoziagarriak.

SANMARTIN PORTALEA



- 3 logela, egongela, sukalde jantzia, komuna eta bainugela. Balkoi 2. Etxe osoak kanpora ematen du. Igogailua. **195.000€.**

ERROTARITXUENA



- Estreintzeko. Logela 2, egongela, sukaldea eskegitokiarekin, eta komun 2. Balkoia. Garajea aukeran. **222.000€.**

Madalena



- Garaje itxia salgai. **27.000€.**

www.inmoduranguesado.com

EROSI ALOKAIJUAN

- **IURRETA:** 400€ hilean. Seinala: 3.600€. Etxebizitza erostea erabakiz gero, ordura arte alokairuaren bidez ordaindutakoa deskontatuko da. 3 logela, egongela handia eta komuna. Jantzia. Berogailua. Berriztua.
- **ABADIÑO:** 600€ hilean. Estreintzeko. Sukalde jantzia, komuna eta horma-armairuak.
- **ALDE ZAHARRA:** 600€. Seinala: 1.200€. Apartamentua. 35 m2-ko terraza. Ikuspegi ederrak.
- **GOIENKALEA:** 550€. Seinala: 1.800€. Apartamentua. Eraikuntza berria.

ETXEBIZITZA BERRIAK

- **ZALDIBAR:** Azkeneko etxebizitza. Garajea eta trastelekuarekin. 105.000€-tik aurrera. (BEZa barne). %100eko finantzazioa Nafarroako rural kutxan.

ETXEBIZITZAK SALGAI

- **MONAGOTORRE:** 70 m2. 3 logela, egongela eta sukaldea. Terraza. Eguzkitsua.

- **IURRETA:** Dantzari. 80 m2. 3 logela eta egongela. Berogailua eta igogailua. 140.000€.

- **EZKURDI:** 175 m2. 4 logela, 4 komun, egongela eta sukaldea. Trasteleku.

- **IURRETA:** Uralde. Logela 2, komuna, sukalde handia eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. 135.000€.

- **ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Garajea eta trasteleku.

- **PLATERUEN PLAZA:** 3 logela, komun 2 eta egongela handia. Trasteleku eta garajea.

- **MATIENA:** Laubideta. 100 m2. 3 logela, komun 2, egongela terrazarekin eta sukaldea eskegitokiarekin. Trasteleku.

- **F.J. ZUMARRAGA:** 110 m2. 4 logela, egongela eta sukalde despentsarekin. Terraza. 169.000€.

- **ARTEKALEA:** 100 m2. 3 logela, komun 2, egongela handia eta sukalde officearekin. Bizitzaren sartzeko moduan. 136.000€.

- **EZKI:** Duplexa. 2 logela. Bizitzaren sartzeko moduan. Lorategiarekin. 185.000€.

- **ALDE ZAHARRA:** 3 logela eta egongela. Igogailua. 126.000€.

- **EZKURDI:** Pisu altua. 4 logela, egongela eta 2 komun. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua.

- **FRANTZISKO IBARRA:** 2 logela, komuna, egongela handia eta sukaldea. Ganbara eta garajea. 235.000€.

- **DURANGO:** 3 logela eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. 95.000€.

- **DURANGO:** Logela 2, egongela eta sukalde office-arekin. 138.000€.

- **MURUETATORRE:** Azkeneko pisua. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea. Ikuspegi ederra.

- **IURRETA:** Berriztua. Igogailua eta berogailua. Eguzkitsua. 156.000€.

- **SAN IGNAZIO:** 3 logela, 2 komun eta egongela terrazarekin. Garajea. Igerileku. 240.000€.

- **TABIRA:** Apartamentua. Erdi berria. Sukalde eta komuna jantziak. Ganbara. 160.000€.

- **TABIRA:** 3 logela eta 2 komun. 1. go mailako materialak. Etxe osoak kanpora ematen du.

- **ASKATASUN ETORBIDEA:** 4 logela eta 2 komun. Terraza. Ganbara eta garajea.

- **IZURTZA:** Logela 2, komuna eta egongela. Ganbara. Berriztatua. 124.000€.

- **BERRIZ:** Logela 2. Berriztatua. 136.000€.

- **OTXANDIO:** Baserria. 240 m2. 126.000€.

- **DURANGO:** Txaleta. 400 m2. Garajea. Lorategia.

- **BASERRIA:** 421 m2. 7.500 m2-ko lursaila. 390.000€.

- **BERRIZ-ELORRIO:** Baserria. 2 etxebizitza. 420 m2. 22.000 m2-ko lursaila.

- **ATXONDO-TXALETA:** Eraikuntza berria.

www.inmoetxetxo.com

AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **94 623 25 23** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



Martxoaren 6an, 18:30ean,
lurretako plazan

Dantzan ikastera

Euskal dantza tradizionalak –fandangoa, arin-arina eta banangoa, adibidez– ikasi nahi dituen orori deia luzatu diote, lurretako Mikel Deuna dantza taldeak antolatutako duen ikastaroaren martxoaren 6ko aurkezpena joateko. Egun horretan plazara bertaratu, 'iurretakodantzariak@gmail.com'-era idatzita, edo 630 205 329 telefonora deituta eman daiteke izena.

Antzerkia

:: BERRIZ

Martxoaren 7an, 18:00etan, **Aladdin**, Kultur Etxean.

:: ELORRIO

Martxoaren 1ean, 19:30ean, **Hamlet**, Arriolan.

:: OTXANDIO

Martxoaren 2an, 19:00etan, **Hamlet**, Herri eskolako gimnasioan.

:: ZORNOTZA

Otsailaren 28an, 21:00etan, **'Distancia 7 minutos'**, Zornotza Aretoan.

Erakusketa

:: DURANGO

Martxoaren 2ra arte, **Leo Simoes argazkilaria**ren **'Euri eta eguzki egunak'**, Arte eta Historia Museoa.

:: BERRIZ

Martxoaren 8ra arte, **Antonio Villanuevaren** **'Hain hurbil, hain urrun'**, Kultur Etxean.

Musika

:: DURANGO

Otsailaren 28an, 19:00etan, **Omar Acosta flautista + Nuria Cazorla dantzaria + Carlos Franco perkusionista**, musika eskolako aretoan.

Otsailaren 28an, 20:30ean, **'Recordando a Los Panchos'**, San Agustin kulturgunean.

Otsailaren 28an, 12:30ean, **Quaoar + Meido + Sun Preachers**, Plateruenean.

Martxoaren 7an, 22:30ean, **Doctor Deseo**, Plateruenean.

:: ELORRIO

Otsailaren 28an, 22:00etan, **Capsula + Kilauea**, Arriolan.

Martxoaren 7an, 22:30ean, **Segun Lazkano omentzeko lagunarteko jaia: Poliputos + Todo en Do**, Arriolan.

:: ZORNOTZA

Otsailaren 28an, 18:00etan, **Piano entzunaldia**, Zelaietako Auditorioan.

Kontalaria

:: IURRETA

Otsailaren 28an, 20:00etan, **Virginia Imaz, 'Sortilegio'**, Herri Bibliotekan.

Berbaldia

:: IURRETA

Martxoaren 5ean, 18:30ean, **Josune Muñoz (Skolastika), 'Femeninos usos de la literatura'**, Herri Bibliotekan.

Ikastaroa

:: DURANGO

Martxoaren 15ean, 11:00-13:00, **hezitzaileentzako kantu-jolas ikastaroa**, Pinondo Etxean. Izen-emate epea: martxoaren 13a baino lehen, Berbaro elkartearen (946 202 540, 'aisialdia@berbaro.com' helbidean, edo Pinondo plazako bulegoan).

:: IURRETA

Martxoaren 6an, 18:30ean, **guraso eta helduentzako euskal dantzen ikastaroaren aurkezpena**, plazan.

Tailerra

:: DURANGO

Martxoaren 18an, 20an eta 25ean, 18:00-20:00, **Aurpegia margotzen ikasteko tailerra**, Ibaizabal ikastolan. Izen-emate epea: martxoaren 13a baino lehen, Berbaro elkartearen (946 202 540, 'aisialdia@berbaro.com' helbidean).

:: ELORRIO

Otsailaren 28an, 18:30etik 20:30era, **Biodantza probatzeko saioa**, Txintxirri ikastolan.

Proiekzioa

:: DURANGO

Martxoaren 5ean, 16:30ean, **'Atlas eta Kilimanjaro: mendiak eta askoz gehiago' dokumentala**, Behargintzan. Jose Ramon Arrilaga Alpino taldeko kidearen eskutik.

Zineforuma

:: DURANGO

Otsailaren 28an, **'Las mujeres del monte Ararat' filma**, Pinondo Etxean.



:: DURANGO | ZUGAZA

Nebraska

Zuzendaria: Alexander Payne

- barikua 28: 19:30/22:00
- zapatua 1: 19:30/22:30
- domeka 2: 18:30/21:00
- astelehena 3: 18:30/21:00
- martitzena 4: 20:00

Un pez fuera del agua

Zuz.: Aun Hoe Goh

- zapatua 1: 17:00
- domeka 2: 16:30

2. ARETOA El poder del dinero

Zuz.: Robert Luketic

- barikua 28: 19:30/22:00
- zapatua 1: 17:00/19:30/22:30
- domeka 2: 18:30/21:00
- astelehena 3: 18:30/21:00
- martitzena 4: 20:00

:: ELORRIO | ARRIOLA

La gran estafa americana

Zuzendaria: David O. Russell

- zapatua 1: 22:30
- domeka 2: 20:00
- astelehena 3: 20:00

:: ZORNOTZA

The monuments men

Zuzendaria: George Clooney

- zapatua 1: 19:30/22:30
- domeka 2: 20:00
- astelehena 3: 20:15

La lego película

Zuz.: P. Lord, C. Miller, C. McKay

- zapatua 1: 17:00
- domeka 2: 17:00

Una familia de Tokio

Zuzendaria: Michael Hegner

- martitzena 4: 20:00

Otsailaren 28an, 21:00etan, Zornotzan

Distancia 7 minutos

Titzina Teatro taldearen ikusizuna da 'Distancia 7 minutos'. Epaila bat da obraren protagonista. 'Curiosity' espazio-ontziak lur hartzen duen egunean termita izurrite batek bere etxetik alde egitera behartzen duen gizona. Gurasoen etxera bueltatu beharko du epaileak, eta aitarekin bizi den bitartean, gai unibertsalei buruzko gogoeta egingo du: justiziaz, zoriontasunaz edo patuaz ariko da. Gaur, 21:00etan hasita, Zornotza Aretoan eskainiko dute antzezlan.



> **DENBORAPASAK**

> **Sudokua**

1

	6	7							
4	1			6	2				
							7	2	
			9	4					
	7	9		5					
							2	3	
9	2		8	4				6	
		6			9	2	1		
		5	6			7	8		

2

1			5			8			
			3	6			9		
5	9					1	2		
	5			7			4		
	4	9				7	6		
	3		8				1		
	2	5					8	3	
6			4	3					
		4			5	6	7	2	

> **ZORION AGURRAK**

✉ zorionak@anboto.org
eguztzeneko 14:00ak arteko epea



> Aitte **Luis Mariri** zorionak, martxoaren 5ean urteak beteko ditu-eta. Musu handi bat guzti-guztion partez!



> Otsailaren 24an 8 urte bete zituen **Maddik**. Zorionak Maddi! Ondo pasau zure urteguna, eta muxuak danon partez!



> Zorionak **Igor** eta **Haizea** lehengusuei familia guztiaren partez. Igorrek atzo bete zituen urteak eta Haizeak martxoaren 4an beteko ditu.



> Aitu, Fernando Alonso! Hemen dator Fernanda, leku bat utziz gero, itzela izango da! Zorionak **Fernanda** zure familiaren partez!



> Zorionak **Ariane**! Egun eder-ederra pasatu domekan, eta pilo bat disfrutau zure gelako lau sorgintxon partez! Musu handi bat!



> Zorionak **Carlota**! 14 urte beteko dituzu martxoaren 4an. Egun polit-polita bat pasatu Xabierren partez!



> Martxoaren 9an hamar urte beteko ditu **Jonek**. Egun ederra pasatu, eta musu handi bat Marta eta Seleneren partez!



> Gure etxeko txapeldunak, **Elenek**, 12 urte beteko ditu martxoaren 4an. Etxeko guztien partez zorionak eta musu handi bat!



> Mutil koxkor honek 12 urte beteko ditu gaur. Zorionak **Marek**! Iurretako familiaren partez. Oso ondo pasau eguna!



> **Iraiak** lau urte egin zituen otsailaren 23an. Zorionak eta mosu bat Markel, aita eta amaren partez!

Jose Antonio Agirre, 4
946 200 869
Avda. Montevideo, 1
946 204 383



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

> **BOTIKAK**

- BARIKUA, 28**
09:00-09:00
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
ZAPATUA, 1
09:00-09:00
• **Sagastizabal** (Askatasun etorb. 19 - Durango)
09:00-13:30
• **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
• **Gaztelumendi** (J.A. Abasolo 2 - Durango)
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
• **Navarro** (Artekalea 6 - Durango)
• **Balenciaga** (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
• **De Diego** (Intxaurren 22 - Durango)
• **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
09:00-22:00
• **Jaio-Olabarrieta** (Errekakale 6 - Elorrio)
DOMEKA, 2
09:00-09:00
• **Etxebarria** (Montevideo etorb. 2 - Durango)
ASTELEHENA, 3
09:00-09:00
• **Irigoin** (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
MARTITZENA, 4
09:00-09:00
• **Campillo** (Montevideo etorb. 24 - Durango)
09:00-22:00
• **Urizar** (Gabiola 2 - Berriz)
EGUAZTENA, 5
09:00-09:00
• **Mugica** (Andra Maria 9 - Durango)
EGUENA, 6
09:00-09:00
• **Unamunzaga** (Muruetatorre 2C - Durango)
09:00-22:00
• **Larrañaga-Balentiaga** (Berrio-Otxoa 6 - Elorrio)

> **TELEFONO INTERESGARRIAK**

- SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 94 681 09 49
Osakidetza 94 600 72 00
Ertzaintza 94 466 93 00

> **GARRAIOAK**

- Euskotren 902 54 32 10
Bizkaibus 94 448 40 80
Pesa 902 10 12 10
Continental Auto 945 286 466

> **TAXIAK**

- Abadiño 94 681 44 70
Matiena 606 459 988
Durango Geltokia 94 681 10 01
Elorrio Geltokia 94 682 00 40
J.L. Uriarte 670 402 002
I. Estebez 670 678 273
M. Galeano 670 409 330
Iurreta 94 620 15 65
Taxi auzunea 688 618 690
Berrizko auzo taxia 620 022 800

> **UDALAK**

- Abadiño 94 621 55 30
Atxondo 94 682 10 09
Berriz 94 682 45 84
Durango 94603 00 00
Elorrio 94 658 27 12
Garai 94 681 63 93
Iurreta 94 620 12 00
Izurtza 94 681 35 48
Mallabia 943 17 14 61
Mañaria 94 681 89 98
Otxandio 945 45 00 20
Zaldibar 94 682 70 16

> **UDALTZAINGOA**

- Abadiño 94 621 55 33
Berriz 94 682 40 36
Durango 94 603 00 00
Elorrio 94 682 02 18
Iurreta 94 620 08 88

> **AZOKA-BASERRITIK-PLAZARA**



Abadiño
(Traña-Matiena)
Eguaztetenan
10:00etatik aurrera
Durango
Zapatu goizetan
Zornotza
Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga.....0,80 euro
Letxuga haritz hostoa1 euro
Azelga2 euro/kg
Espinaka txorta1,20 txorta
Berakatz freskoa1,50 txorta
Ilarrak6 euro/kg
Tomate kontserba...3,90 euro/potea
Arratzak.....3,80 euro/dz
Idiazabal gazta.....17 euro/kg
Gari integraleko ogia3,30 euro

SUDOKUEN SOLUZIOAK

7	2	7	6	5	8	8	1	4	3
1	5	6	3	4	7	2	6	8	7
4	8	5	7	1	6	4	8	2	6
6	3	4	2	1	7	8	5	3	9
5	6	7	3	2	1	6	4	8	9
4	8	4	3	6	9	7	1	5	2
2	6	1	2	8	1	2	6	5	4
7	4	9	7	3	6	1	2	8	5
4	3	4	8	5	2	9	6	7	1

7

6	8	7	1	2	6	5	4	3	9
4	1	4	2	6	3	5	6	8	7
5	6	5	3	4	7	8	1	8	6
3	2	3	6	7	1	1	4	5	8
6	4	4	6	5	8	4	7	1	9
7	5	7	4	1	5	9	3	2	6
2	7	2	4	1	3	6	8	6	5
8	9	8	5	5	2	7	6	2	4
1	3	1	4	8	4	9	8	7	2

1



“Gazteren batek nire lekukoa hartuko balu, konformatuko nintzateke”

Urte luzez atabala jotzen ibili ondoren, etapa horri amaiera jartzea erabaki du Mikel Gerediagak.



> MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urte luzez herririk herri jailetan atabala jotzen ibili ondoren, aro berri bati hasiera ematea erabaki du Mikel Gerediaga iurretarrak. Bere asmoa gazteren bati atabala jotzen irakastea, eta horrek bere postua hartzea da.

Zer dela-eta erabaki duzu etapa honekin bukatzea?

Nik uste dut nekatu egin naitela. Ez atabala jotzea edo dantzarekin aurrera eta atzera ibiltzea ez zaidalako gustatzen. Baina nire bizitzan gauzak aldatzen doaz, eta, orduan, dudan lotura txiki horrekin bukatu nahi dut. Gainera, nire iritzi, hobe da gogo eta motibazio gehiagorekin dagoen mutikoren batek atabala jotzen ikastea, eta horrek nire lekukoa hartzea.

Atabalaren mundutik guztiz aldentzea da zure asmoa?

Egia esan ez, ni prest nago gazteren bati irakatsi behar bazaio, laguntzeko. Edo dantza taldekoekin nonbaitera joan behar badut, joateko. Baina, beraiei ere esan nien, atabal bari geratu nahi ez badute, ni prest nagoela nahi duenari irakastea. Oraingo, gazteren bati

grina hori pizteagaz eta ondoan edukitzeagaz konformatuko nintzateke.

Zuri zelan piztu zitzaizun atabala jotzeko grina?

Egia esan ez dakit. Musika eta, batez ere, perkusioa betidanik gustatu izan zaizkit: panderoa jotzen eta solfeoa ikasten ibilitakoa naiz. Baina, atabala ez nuen jo plazan hamalau urte nituen arte; ordutik aurrera San Migelatan beti jo izan dut. Hala ere, plazara irten baino lehen, kalejiretan ibiltzen nintzen. Harrezkero, nire ibilbidea gehienbat dantzara mugatu da. Hasieran, kontzertuetan jotzen nuen, baina alde batera uztea erabaki nuen, ez zitzaidalako gustatzen partiturak irakurritako jotzea. Nahiago izan dut kalejiretan edo plazan jo. Horrela euskal ohituren parte sentitu izan naiz.

Nahiz eta denbora kendu, momentu onak ere emango zizkizun atabalak.

Bai, asko gainera. Dantza taldeak leku askotara eramanez, eta herri askotako jaiak ezagutzeko aukera izan dut; Baztandarren Biltzarra, adibidez, asko gustatu zitzaidan. Baina nire bizitzako momentu batzuk ere kendu dizkit atabalak, eta horregatik apurka-apurka banatzea da nire asmoa. Hala ere, kendutako momentu horiek galdu izanak ez dit penarik ematen, oso pozik nago-eta atabala nire bizitzaren parte izan delako.

Bestalde, atabala jotzerako orduan, zer da garrantzitsuena?

Eskumuturrak lantzean dago gakoa, horiek aske eta arin egon behar dutelako. Hori lortzeko beharrezkoa da ariketak egitea. Eta hori eskumuturrei goitik beherako mugimenduak

eginda lortzen da. Praktikaturak eskuratzen da eskumuturren mugimendu egokia, eta horrekin ikasten da atabala ondo jotzen. Orain ere, atabala jo gabe denboratxo bat egoten banaiz, eskumuturrak gogortuta ditudala igartzen dut. Aipatutakoaz gainera, belarri ona izatea ere oso garrantzitsua da.

Baina atabal-jotzailea ez da inor txistularirik gabe.

Bai, hori horrela da. Baina, danborrarekin gauza polit asko egin daitezke. Baina horretarako ere gogoia eduki behar da. Nik ere, nahiz eta proiektu ugari izan buruan, ez dut lortu gauza desberdinerik egiterik. Hori, gerora agian, atera gabeko arantza gisa ikusiko dut. Baina, behinola, dantza taldeko trikitilari bati eta bioi bestelako zerbait egiteko gogoia sartu, eta biok taldetxo bat sortzea bururatu zitzaigun. Gazte asanbladan ere batukada talde bat egiteko ideia sortu zen. Hala ere, azkenean, gogo faltarengatik-edo, ez genuen ezer egin.

Bukatzeko, nolako etorkizuna ikusten diozu atabalarik?

Etorkizun beltza, baina atabala jotzen dugunok hemen gauden artean ez da galduko. Musika tresna asko zahar gelditzen dira gazteentzat, eta atabala da horietako bat. Modan ez dagoen instrumentua da. Baina, jendea ez da konturatzen honekin edozer jo daitekeela. Azken batean, bigarren mailako tresna da, txistuarekin danborrik gabe berdindin egin daitekeelako dantzan. Orduan, jendea ez da animatzen hau ikastera. Atabala ez galtzeko gakoa betiko plazatik ateratzean dagoela uste du; nik atera ez diodan zuku hori atera beharko zaio.

Lehen mundu gerra (100 urte)

Literatura eta zinemak II. Mundu Gerrara eraman gaitu zuzenean, lehenengoari kasu handirik egin gabe. Badakigu, Sarajevon, Austria-Hungariako printze oinordekoa erailteak eragin zuela liskarra. Alemanek austria-hungariarekin bat egin zutela, eta horien aurka Errusia, Frantzia, Ingalaterra eta beste aritu zirela. Lubaki-gerra izan zela eta ondorengo urteetako errealitatea sakon baldintzatu zuela: bere baitan eman zen, Austria-Hungariako Inperioaren desagerpena, Otomandar Inperioaren gainbehera, eta Sobietar Iraultzaren jaiotza. Alemaniak, Versaillesko Itunaren ostean, izugarriko iraina jaso zuen. 1871ko Guda Franko-Prusiarrean eskuratutako Alsazia eta Lorrena galtzeaz landa, isun ekonomiko ikaragarriak ordaintzera behartu zituzten. Horiek eta beste batzuk izan ziren nazismoaren gora-daren arrazoiak.

Arestian esan dut guda honek oihartzun eskasa izan duela, batik bat Hego Euskal Herrian. Aitzitik, Ipar Euskal Herrian eragin sakona izan zuen. La Grande Guerre deitzen duten horretan milaka euskaldun hil ziren lubakietan, frantsesez ez zekiten euskaldunak. Hala ere, guda honek ez zituen euskaldunak Frantziatik aldentu. Alderantziz, Iparraldeko euskaldunentzat, I. eta II. Mundu Gerrek, Frantzia demokrazia eta askatasunaren ispilu bihurtu zuten. Ikuspegi hori ez da aldatuko, Frantziako euskaldunek Aljeriako gudan parte hartu arte. Han bizitakoak askatasunaren ispilua milaka zaitan hautsiko du, eta haustura hori gabe ezin ulertu euskal abertzaletasunak Bidasoatik harago izandako garapena, garapen motela izan bada ere.

10€
HAMARREKO
MENUA

10 HAMARREKO MENUA

EGUNEKO MENUA 10€ (egunero menu begetarianoa aukeran) / MENU ERDIA 7,50€ /
UMEEN MENUA 8€ / UMEEN MENU ERDIA 6€ / ZAPATUETAKO MENUA 13€ /
ZAPATUETAKO UMEEN MENUA 10€ / ZAPATUETAKO UMEEN MENU ERDIA 8€ /
MENU TXARTELAREKIN MENUA 9€ /

